



# XITXILIBAKIO

3. zenbakia

1988ko abendua

100 pta

Oraingoan, Imanolen kanta bat aukeratu dugu, zuen gustukoa izango delakoan. Imanolen ahotsa eta Xabier Amurizaren bertsoak sentikorrek dira, baina itzaropenari tokia utziz.

IZ diskoetxeak argitaratutako "Iratze okre geldiak" diskoan aurkituko duzue kanta hau.


## MENDIAN GORA

*Mendian gora haritza  
ahuntzak haitzean dabiltza  
itsasoaren arimak dakar  
ur gainean bitsa  
Kantatu nahi dut bizitza  
usteltzen ez bazait hitza  
mundua dantzan jarriko nuke  
Jainkoa banintza.*

*Euskal Herriko tristura  
soineko beltzen jostura  
txori negartiz bete da eta  
umorez hustu da  
Emaidazue freskura  
ura eskutik eskura  
izarren salda urdina edanda  
bizi naiz gustora.*

*Euskal Herriko poeta  
kanposantuko tronpeta  
hil-kanpaiari tiraka eta  
hutsari kolpeka.  
Argitu ezak kopeta  
penak heuretzat gordeta  
goizero sortuz bizitza ere  
hortxe zegok eta.*

*Mundua ez da beti jai  
inoiz tristea ere bai  
bainan badira mila motibo  
kantatzeko alai  
Bestela datozen penai  
ez diet surik bota nahi  
ni hiltzen naizen gauean behintzat  
egizue lo lasai.*



Imanol.

# UDAL EUSKARA BATZORDEA

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek  
ikasten ez dutelako, dakitenek hitzegiten  
ez dutelako baizik” J. A. Artze.

*Euskal Herriaren hizkuntza Euskara da. Mila urtetan bere hizkuntza bakarra izan da eta beraz, gure nortasunaren adierazgarririk nagusia da orain.*

*Harrigarria da euskaldunak bere hizkuntza-  
ren garrantziaz izan duen kontzientzia.*

*Hain zuzen, bere bizilekuari berari Euskal Herria deitzen dio, hau da, Euskararen Herria, eta bertako gizon-emakumeei Euskaldunak, hau da, Euskaradunak.*

*Horregatik, bere aurkako edozein ekintza, Euskal Herriaren aurkako ekintza bat da. Edozein axolagabekeria, Euskal Herria nazio bezala eraikitzeke, oztopo larri bat da.*

*Elgoibarko Udalak, beraz, Euskararen zerbitzu tekniko eskaini nahi dizue, behar dezakezuen edozer gauzatarako. Izan ere, Zerbitzua herri mailakoa denez, herritar guztiei irekia da.*

*Euskararen inguruko arazoren bati buruzko laguntzarik behar baduzue, ez dudarik izan eta jar zaitezte harremanetan Euskara zerbitzuarekin. Eta inoiz, norbaitek bere beharra izan dezakeela badakizue, emaiozue beraren berri.*

*Ea elkarrekin euskararen normalizazio prozesu honi ateak zabal zabalik irekitzen dizkiogun.*

*Zer eskaintzen dizu euskara zerbitzuak?*

*- Itzulpen zerbitzua: Zerbitzu honen bitartez, Elgoibarko Udala prest aurkitzen da, dendari, taberna, elkarte, lantegi edo edozein ezaugarri, inpreso, kartel, orri, e.a. itzultzeko edo zuzentzeko, baldin eta gero publikoarentzat baldin badira.*

*- Iradokizun edo sujerentziak: Euskara aurrera aterako badugu, denon artean atera beharko dugu eta denon parte-hartzez. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu, normalizazio prozesu honek sor ditzakeen kezka, ideia, asmo edo jarrera guztien berri izatea.*

*Horregatik, dituzuen eritzi, ideia edo kritikak bidaltzea eskatuko genizueke. Pertsonalki etor zaitezten ere eskatuko genizueke, harreman zuzenagoa izan dezagun.*

*Euskararen arazoa guztiona denez, guztion artean konpondu beharko dugu. Horregatik, dei larri bat zabaltzen dizuegu lagun diezaguzuen.*

# ZAZPIKI IRRATIA UHINEN BIDEZ

Udarako oporren ondoren, Zazpiki Irratiak jadanik "kurtso" berria hasi du. Zazpiki Irratiaz eta orokorki irrati libreetaz zertxobait gehiago jakitzearren, aspalditik lan honetan murgildurik dabilen Jorge Hernandorengana jo dugu.

**TXI.:** Definizioak eskatzea zerbait topikoa bada ere, zer da Zazpiki Irratia?

**J.H.:** Zazpiki emisora libre bat duen kolektibo heterogeneoa, baina espresio askatasunaren defentsan batzen dena.

**TXI.:** Noiz eta zergatik sortu zen Zazpiki Irratia?

**J.H.:** Irrati libreena fenomeno orokorra izan da, 1983-84 inguruan ematen dena. Jende sektore batek komunikabide ofizialetatik espresatzeko zailtasuna ikusten du, eta espresatzeko beste bide bat asmatzen du: irrati libreak, nazioari dagokion problematikari loturik baina proiektio lokalekin.

**TXI.:** Ze jende sektore da hori?

**J.H.:** Orokorki ezaugarri hauek dituena: gaztea, hizkera radikaladuna, sistemaren kontrakoa, abertzaletasunari loturik. "Cultura de la K" delakoaren ingurukoa. Elgoibarko kasuari dagokionez badira desberdintasun batzuk. Zazpiki Irratira hurbildu zen jendea ez zen hain gaztea, ez da hain jende marjinala (ekonomikoki ondo bizi dena), eta ez da "Cultura de la K" horrekin identifikatzen.

**TXI.:** Baina, zer da "K-ren kultura" hori?

**J.H.:** Mugimendu unibertsala da. Txirotasunean bizi diren gazte mugimendu bati dei-

tzen zaio horrela, eta espresio modu bezala graffitiak erabiltzen dituzte, K asko erabiliz eta hizki zorrotzekin (nazien antzerakoak) kaleko bortxakeria isladatuz. Badakizu, punkyak eta beste tribu guztiak.

**TXI.:** Kolektibo bat izanik, nola funtzionatzen du Zazpikik?

**J.H.:** Funtzionamendu arrunt eta oinarrizkoa dugu. Asanblea orokorretan erabakitzen dira gauzak, eta asanblea honetan egiten da programaketa etabar. Boluntarismo asko dago.

**TXI.:** Zazpiki eta antzeko talde guztien arazoa dirua da. Nola moldatzen zarete?

**J.H.:** Gaizki. Gainera kontutan hartu behar da irratiek ez dutela diru-irabazirik propagandarik onartzen ez duten momentutik eta bide ofizialetatik dirua lortzea oso zaila da. Pegatekin eta jaialdiekin aurrera egiten dugu. Hal ere Udaletxeko Euskara Batzordetik 50.000 pza. jasotzeko gaude.

**TXI.:** Zer nolako lokala eta material teknikoa duzue?

**J.H.:** Lokala Plaza Txikiko eskoletako ganbaran dago, lokal munizipala da, baina ez du segurtasun baldintzarik, ez eta higienikorik betetzen (ez daukagu urik, egurrezkoa da), marjinatuentzako lokala da. Emisora oso sinplea da, eta nahiko da. Emisora bat montatzea merkea da, baina mantenu gastuak daude beti (konponketak, telefonoa ...)

**TXI.:** Badirudi Zazpikin musika irratsaio gehiegi dagoela, esanahi gutxikoak, zergatik ez dute parte hartzen Elgoibarko talde kulturalak?

**J.H.:** Musika gehiegi dago bai, eta hau ez da



kasualitate bat. Badira arrazoi batzuk: herri honen maila kulturala, kolektibo gutxi, ikerketa materiale falta etabar. Eta gainera badirudi errezena irratsaio musikala egitea dela. Bestalde ondo landutako irratsaioak egin izan dira, eta zenbait kolektibok parte hartu dute: Talde Antimilitarista, Emakume gazteen asanblada, Amnistiaren Aldeko Batzordea, AEK etabar. Interesgarria litzateke DEE-k eta Euskera Batzordeak ere bere txokoa izatea gure programaketan.

**TXI.:** Zer garrantzi ematen diozue euskarari programaketa osatzeko orduan?

**J.H.:** Zazpiki martxan hasi zenean euskaraz egiten ziren irratsaioak ez ziren %1-era heldzen. Orain arte %30a euskeraz egin dugu, eta bide honetatik jarraituko dugu. Elgoibarren euskarak bizi duen egoera i sladatzen duela uste dut. Euskeraz egiten diren irratsaioak emisio egunez eta orduz lehentasuna dute. Gure nahia %100 euskaraz egitea litzateke, baina ezinezkoa da. Elebakartasunera jo behar dugula uste dut, Zazpiki nazio honen parte bat delako, eta gainera gaztelera zapaltzearen aldekoak garela esango nuke.

**TXI.:** Zazpikik "kurtso" berriari hasera eman dio.

**J.H.:** Bai, eta guretzat desafio bat da. Jende berria dago, jende desberdina: euskalduna, abertzaletasunari lotuagoa, konprometitutako sektoreetatik hurbilago dagoena eta herri hau hobeto ulertzen duena.

Zazpiki behin betiko sendotzeko bidean gaude la uste dut, inork kontrakoa nahi ez badu eta bakean uzten bagaituzte. Programaketa orekatu bat moldatzen saiatu gara, kalitatea zainduz. Bestalde irratsaio guztiak ordubete-koak izango dira. Asteko egun guztietan emititu beharrean, ostegun, ostiral eta larunbaterara eraman ditugu irratsaioak, horrela jendeak emisioa dagoenaren ziurtasunaz piztuko du irratia. Edonork Zazpikin parte hartu nahi badu kartelen bidez izango du gure berri eta ager dadila.

**TXI.:** Zertxobait gehiago esango al zenuke?

**J.H.:** Bai, emakumearen parte hartze handiago bat nahi genuke. Zazpikik "lila" kolorea hartu behar duela uste dugu, zeren eta oraindik emakume gazteak jasaten dituen zapalketak eta erasoak aluzinatzeakoak dira. Gainera, orokorki emakumeek irratsaio lan-  
duagoak egiten dituzte, ez dute hizkuntza sexistarik erabiltzen eta herri arazoetara lotuagoak daude; baina emakume gutxi dago oraingoz Zazpikin.

**TXI.:** Azken galdera bat. Noizko Jorge euskalduna?

**J.H.:** Euskaltegietan ibili naiz, eta aurten berriro ekingo diot euskera ikasteari, gainera giro euskaldunean bizi naiz eta errezagoa egingo zaidala uste dut. Nazkatu egiten nau erderaz hitzegiteak, eta herri batetako arauak apurtuko banitu bezala dakusat nere burua.

## "SEKRETUZKO ISTORIOA"



Ganbarako armario zaharra arakatzuz nembilen, kajoi deslikatu bati gogor tiratu eta bere baitan liburutto zahar horaildua eta hautseztatua kausitu nuenean.

Kopeta zimurtu zitzaidan harriduraz. Ez nuen espero horrelako aurkikuntzarik eta barne pozak kilikatu ninduen. Goxoro jaso nuen eta azaleko hautsa kendu nionean, honako hau irakur zitekeen bertan: "SEKRETUZKO ISTORIOA".

Liburuttoa irekiaz batera, eskuz-tintaz idatziriko orri solte bat agertu zen lehen orrialdean. Denborarik galdu gabe irakurtzeari eman nion eta honela zioen ohar misterioitsuak:

"Itsasertzeko edozein herritan gertatu zen hemen agertzen dena. Bostehun ale inprimatu dira, baina moral zain-tzaileek errauts bihurtu dituzte sutara jaurtiaz. Menturaz, batek daki nola, nire eskuetara iritsi da ale hau eta estimu haundiz gorde eta ezkutatuko dut geroztiko belaunaldikoek jakin dezaten, eta ondorioz juzka, hemen gertatua. Eta hau gezurra bada, deabru malapartatuak eraman nazala berarekin betiko infernuko su erraietara.

Maiatza, 1856

Hitzoz jabetu ondoren areagotu egin zitzaidan irakurtzeko irrika. Liburuttoa hertsu gabe ganbarako aulki zaharkituan eseri nintzen, astiro eta arretaz nire pentsamendua paper izkirituaren esanetan murgil zedin. Honela hasten zen liburutto:

Erreka garbi eta jariotsua zeharkatzen zuen bailara menditsu batean kokaturiko baserri apartatuan jaio zen Marlen neskatxa. Ama, bera munduratu zuen egunean hil zitzaion sukarrez menperaturik eta aitak sei urte beranduago galdu zuen bizia gerrateren batean. Harrezkero amonarekin bakarrik bizi izan zen eta bera izan zitzaion maisu eta adiskiderik hoberena.

Basoko gorabehera guztiak irakatsi zizkion. Sendabelarrak prestatzen, gizakion ezkutuzko indarrak zuzpertzeko edariak atontzen, naturarekin harreman estuan bizitzen, lurra eraiteko sasoirik egokienak hautatzen, eguraldia iragartzen eta batez ere, bere ingurunea eta ingurukoak errespetatzen.

Bere amona-lagun maiteak begiak itxi zituenean Marlenek hogeitabost urte bete berri zituen.

Ez zekien zer zen pekatua, ongia eta gaizkiaren mugaz gainerik zegoen. Maitasuna bera zen osoki. Bizitzaren zentzu zorrotza zuen, ez zen ergela, ezta inozoa ere. Natura modukoa zen, goxoa eta gogorra, argia eta iluna, irritsua eta negartia, ausarta eta herabetia ...

Gorputzez ere kontraste bizikoa zen, gaurko haize epela eta biharko negua bezala. Azal zuriska, ile beltzarana eta begi berde handiak. Zangoak solteak, beso indartsuak eta bular tente borobilak. Kua-dro inpresionista batek sortarazten dizun erakargarritasuna nabari zitekeen Marlenengan.



Hala iruditu zitzaien behintzat bi gizon haiei, haritz mardul baten enborretik kirituz, Marlen ur gardenezko errekan igerian eta buru gorputzarekin jolasten ari zela begistatu zutenean, udaberriko arratsalde epel hartan.

Paisaiaren osagarri zirudien, uretatik irten,urrats batzu eman eta zango zabalik etzan zenean belartza goxoan eguzkiari aurpegi emanez.

Txundituta zeuden. Ordubete luzean ziharduten paisaia dastatzen. eta hala jarraitu zuten Marlen bera tentetu eta baserrira sartu zen arte.

Bi gizon hauek herriranzko bidean zihoa zen, urruti samar dagoen beste baserritik zetozen, bertan lanen bat egitetik, eta etxerako asmotan ziren ikuskizunaz topatu zirenean.

Ilunabarra zen liluralditik atera zirenean, eta elkarri ezer esan gabe, burutapenak batenak bailiran, Marlenen baserrira abiatu ziren ostatua eskatu asmoz.

Irrifartsu agertu zitzaien neskatxa, poztu egin zen bisitaldiaz. Amona hilez geroztik bakardadearen erreinuan bizi baitzen eta ongi zetorkion besteren adiskidetasuna ere.

Laster bildu ziren mahaira solasaldi oparoan. Marlenen xarmantasuna gero eta betegarriago zitzaien bi gizonari eta berehalakoan ohartu zen horretaz neskatxa. Ongi garatua zuen sena eta ikusi zituen bezain laster jabetu zen irrikiaz mozkorturik zue-dela. Ez zen halabaina beldurtu. Aitzitik. Marlenek basoko belarrez eginiko edaria prestatu zuen afalondorako eta inor konturatzeko amodiozko gau sutsua bilakatu zitzaien. Beheko suaren argipe samurrean, hiru gorputz laruren mugimendu armonio-tsua hasperen eztitsu eta hordigarriekin nahastu ziren ilargi beteko gau hartan.

Biharamonean elkar agurtu ondoren, eguzkiarekin batera atera ziren herrirantz eta bisitaldi gehiago egiteko xede tinkoa hartu zuten.

Eta hala izan zen. Batzutan bat, bestetan biak, sarritan elkartzen ziren Marlenekin plazerrezko jauregian. Harreman estuak, sakonak eta garbiak zituzten. Lagun minak ziren.

Isilezko enkontruak ziren, hala erabaki bait zuten hirurek. Gizonetakoak lanaren aitzikiak baliatzen ziren aurkitutako amodio isuriak dastatzeko. Bizitza zoriontasunaren ildotik bideratu zitzaien.

Eta halaxe zen, lanean inoiz ez bezala-

ko gogoaz aritzen ziren. Herriko normahire-  
kiko harremanetan oreka eta naretasuna na-  
bari zitzaien. Osasuntsu nahiz pozez gainez-  
ka zeuden eta sasoz helduxeak izan arren  
oso gazte sentitzen ziren bi gizon hauek.

Lotura antzuak baztertzetik eta era  
naturalez bizitzetik zetorkien ikuspegi berri  
hau. Zoriontasuna eta Natura apurtezinezko  
lotura hertsia zen eurentzat.

Herri ttikietan baina, handik edo hemen-  
dik, laster sortzen dira zurrumurruak eta  
esamesak. berehalakoan barreiatu zen berria  
herri eskualde osoan, inork jakin ez arren  
gauza ziurrik.

Baserri hartako neskatxa ez omen zen  
paraje onekoa. Bakarrik bizitzeaz landa,  
lizunkerietan aritzen omen zen inork ezagu-  
tzen ez zituen gizon batzurekin. Maiz bisi-  
tatzen omen zuten eta irakaspide txarra  
gerta zitekeen inguru horretako biztanleen-  
tzat. Horrela erabaki zuten herri hartako  
moralzaintzaileek. Jendea erlijio bidetik  
apartatzeko arriskua eta ohizko sorginke-  
rietan murgiltzeko desioa suntsitu behar  
ziren. Eskarmentu gogorra behar zen.

Eta horrela, moral zaintzaileen ma-  
nuz, begirale bat igorri zuten bailara harta-  
ra, berri zehatzagoz jabetuz gero, erabaki  
sendoagoa hartu ahal zezaten.

Egun batzu igaro zituen basoan ezku-  
taturik eta aski izan zitzaizkion konturatze-  
ko, zenbait gauetan isiltasuna eta zuhurtasu-  
nak lagundurik, izaten zela baserri hartan  
barrerik, irrintzirik eta oihuska goxorik.

Bisitatzailleak ez bazituen ezagutu  
ere, buruan geratu zitzaion ostegun-larunba-

tak izaten zirela enkontru egunak.

Ez zuten besterik behar izan moral  
zaintzaileek. Hurrengo asteko larunbat  
gauean hamabi gizon mendiratu ziren zal-  
diz euren nagusiek hartutako erabakia bete-  
tzera.

Berrehun bat metrotara utzi zituzten  
zaldiak eta isilean astiro astiro baserriraino  
hurbildu ziren.

Bost minutu barru dena zegoen sultan.  
Guztia erre zen, suaren txinpartek arrabos-  
ka ziharduten gizaki batzuren garrasi min-  
garriekin batera. Hirurak erre zituen su  
gipidagabe eta mendekatzailleak.

Hurrengo egunean harri batzu eta  
errauts franko idoro zitezkeen bakarrik, euri  
lanbruak gehiago tristetzen zuelarik berezko  
egoera hitsa.

Herrian Jaungoikoaren justiziaz hitz  
egiten zen. Zigorra tximista bihurtu omen  
zen gau hartan, ekaitzik ez zegoen arren.  
Egoki atera zitzaien dena moral zaintzaileei  
eta ezkutuzko mendekuaren atsegín irriba-  
rrea zerien guztiei bati izan ezik.

Sua sortu zuteneko biharamonean ba-  
serri erretoak miatzen ari zelarik zilarrez-  
ko gurutzeta eta patrikerako erlojua aurki-  
tu zituen irribarrerik gabe geratu zen gizon  
honek.

Handik egunetara ohartu zen jendea  
komentuko priorea eta herriko medikua fal-  
ta zirela. Era guztiko eritziak sortu ziren,  
baina batek bakarrik zekien haizeak barreia-  
tu zituela haien hautsak.

••





# EUTANASIA ETA ABORTOA

Eutanasia modu askotara deitua izan da: "heriotza goxoa", "errukizko hiltzea", "sui-zidio lagundua", e.a.

Urte luzeetan ahaztuta egon den eutanasiaren arazoa, indar berriz ari da plazaratzen Mendebaldean eta gainera berriak egitera behartzen gaitu.


Mendebal Europa osoan krimenezat jotzen da. Baina gero eta mediku eta erizain gehiago ari dira berau praktikatzeko dutela onartzen Britainian, Mendebal Alemanian, Holandan eta abarretan.


Britainian %72 daude eutanasiaren alde baldintza batzutan. Eta Frantzian %76 dira errukiz eutanasia praktikatzeko dutenen ekin-tza deskriminalizatzearen alde agertu direnak.

Eutanasia gogor eztabaidatua izan da Europan 1936 az geroztik, britainiar talde batek Borondatezko Eutanasi elkarteak eratu zuenetik eta legeasmo bat aurkeztu zuenetik. Bainaasmoak huts egin zuen, botoek bidea itxi bait zioten.

Baina azken urteotan nabarmen hasi dira Europan eutanasiaren aldekoak. Holandar elkarteak 24.000 kide ditu, 1976 az geroztik Dinamarkan, Suedian, Suitzan eta Belgikan ere sortu dira elkarteak eta baita katoliko kopuru handiak dituzte Italia, Frantzia eta Espainian ere.

Inglaterran ere eutanasia ekintza kriminala da. Baina halere eutanasia aktiboa eta pasiboa, biak praktikatzeko diren ziurtasuna dago ingeles ospitaletan.





Mendebal Alemania da eutanasia praktikatzeko lege erreztasun handienak ematen dituen herrialdea. Suizidioa ez da krimena Almannian, ezta laguntzea ere.

Holandako kasua berezia da, legalki debekaturik egon arren praktikan onartu egiten bait da. Salatuak gertatzen diren medikuak multa txikiak ordaintzen dituzte edo salaketak artxibaturik geratzen dira. Tolerantzia honi esker, urtean 5 edo 6 mila pertsona hiltzen dira eutanasiaren bidez. Adibidez, Holandako mediku batek egunean 6 bat aldiz praktikatzen du eutanasia "aktiboa": azken unera iritsia den gaisoari berariaz herio-droga bat ezarriz, oinazea kentzeko eskaria aurrez egindakoa denean. Halere, eutanasia "aktiboak" 12 urtera arteko presondegiaren zigorra merezi lezakeen krimena izaten jarraitzen du holandar kodean. Baina bi legeasmo sartu dira Holandar Parlamentuan eutanasia legeztatzeko egoera ongi zehaztuetan, eta bietakoren bat, aurtengo urtea amaitu baino lehen, seguraski lege bihurtuko da.

Historia, debeku eta askatasunaren arteko borroka amaigabe bat besterik ez da. Hemen, legeak beti atzera gelditzen dira.

Abortoaren arazoa berdina da, nahiz eta borondatez abortatzea debekaturik egon, milaka emakumek abortatzen dute. Datu horrek markatzen du gizartearen joera, eta eskaera hori betetzera etorri beharko dute legeek.

Garai bateko itxiturak, eskandaloak, erlijioaren debekua lasaitzen ari dira. "Normaltzen" ari gara. Eta bide berdinez helduko gara eutanasiara ere.

Eutanasiaren aldekoak bizkor ugaldtu badira ere, kontrakoek erasoak ere era berean gogortu dira. Erlijioa oraindik oso eraginkorra da gure gizartean, eta hortik aterako dira eutanasiaren aurkako ahotsik ozonenak.


Alde batetik, kontra daudenek biziari zorzaion errespetuaren printzipio sakratua aipatzen dute. Beraien ustez, nazien izugarriker-



riak errepikatzeko ate bat irekitzea izango litzatekeela eutanasia legezkatzea.

Aldiz, aldekoek diote, hain zuzen ere alderantzizkoaren bila dabiltzala, berek bakoitzari utzi nahi diotela noiz eta nola hil erabakitzeko eskubidea.

Eutanasiazaleak "duintasunez hiltzeko" eskubidea eskatzeari ekin diote. Gehienek sendabiderik ez dutenei eta azken fasean daudenei bakarrik eskuratu behar zaiela esaten dute, baina bada taldetxo bat erreazionalki bere burua hiltzea erabakitzen duen edonori bide hau eskuratu behar zaiola onartzen duena.



Beste zenbaitek uste du, berriz, eutanasia eskubide bezala onartzen den bezain laister, obligazio bihurtuko dela. Jendeari bere burua hiltzeko eskatuko zaiela bere ingurukoentzat karga edo molestia gerta ez dakien.

Bestalde, ez da eutanasia suizidioarekin nahastu behar. Eutanasia da minagatik bizitzen jarraitu ezin duenak hartzen duen erabakia, egoera konponezin baten aurrean heriotza lehen bait lehen eskuratzeko. Suizidioa da bizitzen jarraitu nahi ez duenaren bidea.

Heriotzaren inguruan gertatzen ari den mugimendu kontra esankor hauek gogoeta sakon baten premia eta geure gizarte portaeira aldatu behar nabarmena erakusten du. Soluzioa, benetako soluzio gizatiarra faktore ezberdin eta askoren konbinaketa orekatutik sortuko da, zalantzarik gabe.

Urteen kontua da, dignidadez bizitzeko eskubide bezala behar dugu dignidadez eta goxo hiltzeko ere.




## ABORTOA ETA EUTANASIA

Abortoa eta Eutanasia gaur egun pil-pilean dauden gaiak direnez, interesgarri iruditu zaigu jendearen zenbait eritzi Txitxilibakion argitaratzea. Hori dela eta, Lanbide Eskolako eta Institutoko azken mailako ikasleengana jo dugu euren eritzia eman diezaguten.


Abortoari buruzko galdekizuna emakumeen artean bakarrik egin dugu.

Hona hemen, inkesta interesgarri honen emaitzak:


\*Emakumeak abortatzeko eskubidea duela pentsatzen al duzu?




\*Zure kasu pertsonalean, haurdun geratu ezkeror abortatzeko aukera kontyutan hartuko al zenuke?



\*Legeak dioenarekin ados al zaude?




\*Zure ustez, abortoa dohan eta zentro publikoetan izan beharko litzateke?




Hona hemen, Eutanasiari buruzko inkestaren emaitzak:


\* Eutanasia aktiboaren aldekoa al zara?




\* Eta Eutanasia pasiboaren aldekoa?



\* Gaixotasun egoeran aurkitzean, aparteko teknika bizi-luzagarririk erabiltzeko medikuari eskabidea eginez, "testamentu" gisako bat sinatuko al zenuke?



\* Legeak dioenarekin ados al zaude?



# Gazteria



Normaletik at jantziriko "Punk" gazteak Belgikako kaleetan zehar paseatzen.

## Belgika

**B**ESTE zenbait herrialdetan bezalaxe, gazteria belgiarrari gatazkarik funtsezkoena dakarkion arazoa enpleguarena da. Langabeziak, zeinak populazio aktiboaren %10-12 hartzen duen, batipat 18-25 urte bitarteko gazteak ukitzen ditu. Hala, egoera bereziki penagarria gertatzen da diplomaz hornituriko unibertsitari neska-mutilentzat, baldin hau erdies-teko isuri den izerdia eta dirua kontutan hartzen badira behintzat.

Hala ere egoera horrek ez dio atzera eragin gazte jendeari goi mailako ikasketak egiteko bidean, zeren %30-35 portzentaia kalkulatzeko baita da unibertsitari gazteen kopurua, lehentasuna ekonomi zientziek, ekonomia aplikatuak eta informatikak dutelarik.

Lege berri batek 18 urtetara jaso du eskolaldi obligagarria. Baina ez da haatik egoera aldatu, zeren aurretik ere gazterik gehienek jarraitzen bait zituzten ikasketak 15 urtez goiti.

Krisian sartu arren, bizi mailak oso goian jarraitzen du eta aski eskuzabala da subsidio sistema. Zinez, badira bandalismoaren eta drogadikzioaren kasuak eta gizartekontra edo gabeko jarrerak, baina alarmagarri ez den maila batetan, eta are, ez dirudi hau ekonomi egoera txar-tzeak sobera azkartu duenik. Bestalde, zenbait gaztek formulatu kritika askok badu oinarririk eta beharrezko da haintzat har ditagun.

Gainera, bizitasun, ganora eta bihotz zabalatasunaren lekukotasunik ez zaie falta gazteei. Ingurugiroa babesteko, desarmea eragiteko eta garapen bidean diren herrialdeei laguntzeko ekimenak ez dira gutxi, gazteriaren axola eta partaidetza kilitkatzen dutelarik. Gauza bera esan daiteke gazteriaren egoitzetako eta antolakuntza kulturaletako zereginen dagokienean. □



Gazteak zuhaitz enborrak ibaibidez garraiatzen. Suomi-Finlandian.

## Suomi-Finlandia

**G**AZTE suomitarrek geroz eta zati txikiagoa osatzen dute herrialde hartako populazioaren baitan. Hara, 1959ean populazioaren %30 15 urtez beheiti zen; 1980an, aldiz, %20. Egungo gazte suomitarrek egokiro beren behar-rak asebetetzeko bidea dute. Are, zenbait-ek beren oparotasuna gehiegizkoa dela pentsatzen du. Hauen artean kultura moderno transnazioaletik eratorri azpikultura batzuk garatu dira. Hein batetan aski nabaria da bideo jokoetarako eta marka famatuko jazkietarako zaletasun konformista. Baina suomitar gazteak ez dira soilki kontsumitzaile; beren interesak anizkun eta bariatuak dira. Gutxi-asko 7-24 urte bitarteko %64 haur eta gazte ongintzako erakunde batetan eta gehiagotan kide dira. Irakurle egarritsuak dira eta bibliotekako bezero aktiboak. Oraintsuko inkesta baten arabera, kasik haur guztiak eta %90 gaztek gutxienez sei hilabetez behin liburu bat irakurtzen du. Alabaina, panorama ez da iduri duen bezain argia. Alde batetik, gazteen enplegu arazoa ur geldiaren pareko da. Hauen desenplegu indizea heldue-na baino bi halakoa da. Eta desenplegua kausa delarik eta ikasketak lehen baino lu-zeagoak direlako, gazteek Suomin garai batetan baino geroago uzten dute familia (20-24 urte bitarteko bi suomitarretarik batek gurasoekin bizitzen jarraitzen du). Familia uzten dutenean, berriz, bizitegie-ren arazo larria sortzen zaie. Gerra da herrialde honetako gazteen gauzarik beldur-garriena, horretaz esperientzia pertsonal apurrik ez badute ere. Karrera hautatzera-koan enplegu interesgarri bat lortzea dute lehen helburua. Gorabidea bigarren mailan eta soilki hirugarren mailan soldata ona irabaztea. □



Bangkok.- Neskatala bat Budaren estatua garbitzen.

## Thailandia

**T**HAILANDIAN, 1981. urtean 11 milioi pertsona ziren hor nonbait 25 urtez behetikoak, hau da 48 milioi biztanleko populazioaren %23 gutxi-asko. Landa herrietan bizi diren gazteen kopurua (non kokatzen bait dira %80 thailandiar baino gehiago) askoz handiagoa da hirietan bizi direnena baino. Hara, 1978. urtean 15-25 urte bitarteko %67 gazte kalkulatzeko zen lehen mailako ikasketak eginkoen kopurua. Kualifikaziorik gabeko langileak dira gehienak laborantzan, industrian eta negozioetan. Gutxi dira goi mailako ikasketak egin ohi dituztenak, eta hauek uste dute ez daudela enplegu baten jabe egiteko prestaturik eta burutu ikaske-ta motak ez duela lanaren merkatuarekin ikusteko handirik. Geroz zorrotzagoa da problema honi buruzko kontzientzia. Gobernua ahalegintzen ari da beste posibilitate batzuk martxan ipintzen, hala nola irakaskuntza klasikoa eta ez klasikoa dena komunikabideez baliaturik.

Langabeziaren indizea altuena 1981ean 20-25 urtetako adinekoei zegokien. Azken hamarkadan zehar langabeziaren kezka areagotu egin da thailandiar gazteen artean. Gazteriaren Bulego Nazionala 1973an sortua da, gazteriaren garapen programak planifikatu, koordinatu, gainkuskatu eta ebaluatzeko. Estatua ardura-turik dago prestakuntza profesionalari bu-ruzko posibilitateak klubak, kirolak eta jo-las ekintzak sustatzeko. □



Konarka, Orisa estatuan, India, XIII. mendean eraiki Eguzkiaren Tenploko eskultura baten xehetasuna.

## India

**E**GUNGO Indian gazteak artega eta deskontent dira, injustizia sozioekonomikoak, pobrezia, langabezia, ustelkeria eta irakaskuntz sistema eskasa direla medio. Unibertsitateetan da egoera hori nabarmenki ikusten. Indiar gazterik gehienak landa herrietan bizi dira. Laborantza dute lanbide, baina langintza mota honek ez du urte osoan okupatzeko modurik ematen. Gehienak ez dira bigarren mailako ikasketak egitera iritsi. Lehen mailako eta goragoko mailako ikasketak burutzera heldu diren laborari bakanak langabe aurkitzen dira. Lanerako posibilitaterik ezean hirira emigratu beharrean aurkitzen da hauetariko asko; gainerakoek, beren herrixkatasun jarraitzen dute, etsipenezko sentipen ikaragarri baten murgildurik.

Milaka unibertsitari graduatu dira urteetan zehar enplegurik gabe edo azpienplegu bat baizik ez dutelarik. Zenbait salbuespen izan ezik, eskola nahiz unibertsitateek burutu irakaskuntza ez da batera praktikoa. Nahiz eta azkeneko hiru hamarkada hauetan milioika enplegu sortu diren, ez da konpondu ahal izan lanbide arazoa, eskulanaren plangintza egoki bat ez dagoelako, irakaskuntza orokorrari buruzko sistema zaharkituak jarraitzen duelako eta populazioaren attergabeko hazkuntza kausa delarik. Azken bi urteotan ezarri irakaskuntza espezializatu eta profesionalaren sistema berri bide onetik abiarazi du arazo hau.

Mundu osora komunikabideak hedatzeari esker, indiar gazteek ukan lezakete beste herrialdeetako egoera sozial eta ekonomikoaren ikuspegi jatorragoa, bereziki herrialde garatuei buruz. Eta honek, jakina, eragin handia du hauengan bertako aldaketa sozial eta ekonomiko nahiko motela dela oharatu eta ikusteko. □




Emazteki itzultzaile zientifiko bat National Scientific and Technical Centre (PANSDOC) erakunde lanean. Unesco-ren laguntzaz sortu organismoa da hau Karachi, Pakistan-en.

## Pakistan

**G**AUZA jakina da tentsio eragile handia dela gizarte bat laborantzatik industria mundura pasatzeko prozesu hori; eta honek berekin dakarren nahasketa intelektuala eta espirituala. Gazteriak jasan ohi du gehienik egoera hau.

Eta gazteak, ohar, pakistaniar populazioaren erdia direla gaur egun. Independentiaz geroztik, gaztea hezkuntzaren premiaz geroz gehiago kontzientziazten joan da eta alfabetatze indizea gehitu egin da. Eta halaber hezkuntza zientifikoa hartu duten gazteen kopurua ere handitu egin da, mundu modernoaren exijentzien bultzadaz seguraski. Baina honek ez die humanistikatik zientzietara pasatzearekin uste bezainbat arrakasta ekarri. Irakaskuntz sistema ez da orain arte gazteei identitate kultural argitsu bat emateko gai izan, ez eta posibilitate ekonomiko egokiak eskaintzeko ere. Azken hamarkada honetan batipat pakistaniar asko emigratu da Golko-ko herrialdeetara erosotasun ekonomikoaren irrikaz.

Goi mailako ikasketak egin eta berauen araberako enplegurik aurkitzen ez duten gazteak zapuzturik eta bazterturik sentitzen dira. Askok droga munduan aurkitu du bere babespea. Industrializazioa eta hiriztapen bizkorregiak aldaketa bortitzak gauzatu ditu ohitura arloan, eta hala, balio zaharrak ategatasun eta handinahikeriaren uhinpean murgildu dira. Balio zahar eta berrien arteko kalka horrek egundainoko deskontentamendua ekarri du gazteengana. Eta belaunaldi berriak bezalaxe zaharrak ere oharturik dira jadanik gazteei erresponstabilitate handiagoak gomen datzeaz. □



Haur batzu Diurbel hiriko mezkitearen aurrean jostatzen

## Senegal

**G**AZTEEN etorkizuna kontsideratzean, handia dela ohartzen gara herrialdeen arteko diferentzia. Hauetan den analfabetoen portzentaia altuak eta hezkuntzarako nahiz prestakuntza profesionalerako posibilitate urriek iluntzen dute etorkizuna. Gainera, arrunt ahula da gizabideari buruzko gazteen kontzientzia, zeina gaizkile kopuruaren gehikuntzan nabari den gehienbat.

Guretat enpleguaren arazoa da lehenetasunik lehenena duen arazoa, hau baita funtsean pertsona garapenera, premiak asetzerara eta etorkizuna segurtatzera darman bidea. Gerora datoz osasunaren eta habitat delakoaren arazoak. Eta ondoren, berriz, etxearen barneko premiak, familiaren barnekoak, ikasketak, aisia eta herri bizitzan parte hartzea.

Senegal herrialdea hizkuntza, kultura eta erlijio diferenteko komunitatez osaturik dago, eta honek ez du gutxi tolerantzia sustatzen. Hori dela eta ikasi ahal izan dut neuk izaki bizidun oro maitatzen.

Gazteen mugimendu zenbaitetan partaide naizue. "Dahira" delakoan (musulman elkargoa) nire erlijioa ezagutzeko bidea egiten ari naiz eta aktiboki, bera bizi dadin, ahalegintzen. Lizeoko egoitzan gizarre eta hezkuntzaz animazio teknikak direla medio neure burua hornitzen; inguru oso ezberdinetako ikasleek arteko harremanak lantzen dira bertan. Azkenik, scout antolakuntzari esker, hatzeman dut nire inguru natural eta kulturalak, nire bizitzaren markoa dut hobetu, ezagutza tekniko zenbait ikasi eta zenbait balio moral eskuratu edo sakondu: ekimenaren zentzua, lagunartek eta elkar aditzeak gizarte baten garapenerako eta kolektibitate behar-suenen alde jokatzeko duen garrantzia. □



## IÑAKI AGIRRE

### Zine Klubaren gidari bakartia



Maiatzera arte behinik behin, eta asteburuak hurbildu ahala, plan polita genuen Elgoibarren ostegun edo ostiral gauerako. Izan ere, afaldu ondoren hor abiatzen ginen presaka Antzoki Zaharrera, kafea hartzeko ere astirik gabe gehienetan. Takilara hurbildu eta sarrerak eskatzearekin batera, Iñakiren irribarreak agurtzen gintuen. Zine sarreran beste Iñakik pelikulari buruzko orria luzatzen zigun, txintik ere esan gabe gehienetan. Antzoki txikiaren barruan gure lekua hartu eta ingurua begiratzuz jende ezagun asko ikusten genuen. Handik minutu gutxitara, argiak itzali eta pantaila argitasunez betetzen da, gure begiak bezala, eta zineraren lilurapean geratzen gara.

Hau posible egiten duten Iñakietako batekin egon gara kafetegi batetako mahai baten bueltan, solasalditxo bat egiten, Iñaki Agirre-ekin alegia. Bizar luzeak eskutatzen dion aho ia ikustezinetik ahots lasai eta baxu bat heltzen da doi-doi gure belarrietara. Hona hemen, guri esandakoa:

**TXI.:** Egiguzu Zine Klubaren historia laburbat. Noiz sortu zen?

**I.A.:** Zine Kluba orain dela 10 urte sortu zen eta bizpahiru urtez aritu ondoren taldea desagin zen, batzuren ikasketak eta beste arrazoï batzuk zirela medio. Geroztik, esan liteke neu bakarrik geratu nintzela. Halere, Zine Klubak aurrera jarraitu zuen zenbait erakunderekin edota herriko taldeekin batera antolatuturiko zikloen bidez. Era horretakoak izan dira adibidez, Donostiako zinemaldiaren inguruan, Gestorekin edo Korrikaren kanpaina barruan burututako emanaldia. Dena den, iaz hasi ginen berriro erregulariki funtzionatzen, eta azken urtean gainera Iñaki San Martin eta biok aritu gara.

**TXI.:** Lan handia ematen du Zine Klubak?

**I.A.:** Bai. Jendeak ezetz pentsatzen du, baina gure lanik handiena zer-nolako pelikulak ekarriko ditugun pentsatzea da. Ideia asko izan ditugu buruan; miniziklo ugari planeatu dugu, gehienak gauzatzen ez badira ere: Argentinaz zinea, Afrikarra, ... Izan ere





oso zaila da programazio egoki bat burutzea.

Zine Klubaren lineari jarraituz, hau da, ziklo zail samarra antolatuz jendea gutxitu egiten da, eta orduan pelikula deigarri edo ezagun bat ekarri behar da jende multzoa berreskuratzeko. Hau da, Zine Klub bezala joanez gero jendea nabarmenki gutxitu egiten da.

Zine Klubak beti izan du horrelako "zine ona" ren aureola bat. Baina zinema komertzialetan ere badira pelikula onak. Nik ez dut uste Zine Klubak pelikula onak ematen dituenik. Zine Klubaren lana beste bat da: alde batetik, zine alternatiboa eskaini behar du, baina hauek zailak egiten zaizkio ikuslegoari eta publikoa gehiago doa espektakulora nahi ala nahi ez. Bestetik, aspaldiko zinea edo zine zaharra berreskuratu behar dugu ene eritziz.

TXI.: Garai batean, eta oraindik ere bai, zenbait Zine Klubetan, pelikula aurretik aurkezpena izaten zen eta ostean foruna edo elkarrizketa egin ohi zen. Hemen ez da horrelakorik. Zer dela eta?

I.A. : Nere ustez, jendeak zineari dagokionez arazo kulturala dauka: ez ditu zinegileak ezagutzen, e.a. eta zaila da maila horretan hitzegitea. Gainera, pelikula bakoitzari buruzko eritziak ezberdinak dira eta denak errespetatu behar dira. Beharbada, zinea eskolan beste edozein materia bezala eman

beharko litzateke. Kontuan hartu behar da ehun urte badirela zinea egiteari ekin zitzaiola eta ez litzateke harritzekoa izango pintura edo literaturarekin batera zinea ere ikastea. Horrela, jendeak ere zinez hobeto gozaten ikasiko lukeela iruditzen zait.

TXI.: Zer balantze egin dezakezu iazko eta aurtengo urteetaz?

I.A. : Azken urte honetan milioi bateko diru mugimendua izan dugu, azkenean parrean bukatu dugularik, hau da, ez dugu ez irabazirik ez galerarik izan. Hiru mila sarrera saldu dira eta gutxigorabehera 150 pertsona izan dira saio bakoitzean. Aurten, dena dela, iaz baino hobeto ibili gara. Gainera, azken bi hilabeteetan ostegunetako betiko saioaz gainera, ostiraletan ere beste saio bat eman dugu, baina esperientzia ez da batere ona izan; jendea ostegunetan joatera ohitu da eta ostiraletan ez da jende asko etorri.

TXI.: Zein da zuen aurrerantzeko asmoa?

I.A. : Oraindik ez dakigu jarraituko dugun ala ez. Egia esan, nahiko erreta gaude eta ilusioa falta zaigu. Zine Klubak mugimendu zaharrak dira eta mugatuak daude. Batetik, merkatuak berak ipintzen dizkion mugak daude; Zine Klubetara ekarri daitezkeen pelikulak hiru eratakoak izan daitezke: pelikula ikusiak, komertzial interes urria dutenak eta pelikula gogorak.

Bestetik, herri txikia izateak ere beste oztopo batzuk gaineratzen ditu jende gutxi bait dago.

Gainera, telebista eta Bideo Klubetan ere pelikula onak aurki ditzakegu. Beraz, oraindik ez dakigu zer egingo dugun. Baina aurrera jarraitzekotan ideia batekin jokatuko dugu: Depurazioa. Horretarako bi bide jarrai daitezke, alde batetik, Zarauzko Zine Klubekoen exenplua dugu. Zarautzen hilero bi pelikula ematen dituzte Zine Klubaren lineakoak direnak eta gero beste bi nolabait osatzera datozenak, azken bi hauek komertzialagoak.

Beste bide bat zera litzateke, Udalak edo beste norbaitek subentzionaturiko zine ziklo luze batzuk, adibidez euskal zinea edo errusiar zinea, e.a., eta tartean Zine Klubaren beraren pelikulak sartu.

TXI.: Euskal filmeak hartu eta ziklo berezi bat emateko zenbiltzatela entzun dugu. Zertan geratu da hori?

I.A. : Eusko Jaurlaritza eta Euskal Filmotekarekin ere egon ginen orain hilabete batzuek eta materiale asko dagoela konturatu ginen, zaharra batez ere. Gero, Udaletxekoekin egon eta Trinitate jaien inguruan ziklo luze samar bat egiteko asmoa azaldu genuen. Baina Euskal Hitz zela eta, fetxa asko hartuta egonik, gure asmoa bertan behera utzi izan behar dugu oraingoz.

TXI.: Zertan datza zure ustez Euskal Zinema?

I.A. : Nere ustez, Euskal Zinematik ez dago, baina bai hemen egindako zinea. Oraindik ez dago bertako estetikarik, hemen egindako pelikula asko kanpoko patroien estetiko bidez burutu dira. Fellini euskaldun bat behar litzateke, estetika berri bat sortuko lukeena.

TXI.: Zinemagintzan, esperientziarik izan al duzue?

I.A. : Nik ez, baina Iñaki San Martinek bederatziz luze metraiatan parte hartu du: "Segovia-ko ihesa", "Albaniako konkista", "adios pequeña", "Tata mia", "Mi querido general", "El Dorado", e.a.

TXI.: azkenik eta bukatzeko, eman dezagun oskarrak banatzen ari zarela, zeini emango zenizkioke ondorengo oskarrak?

Pelikularik onena?

I.A. : Zaila da erantzutea, izan ere pelikula guztietan badira bost edo hamar minutu oso onak. Dena den, batzuk aipatzekotan, hauek:

"Historias de Filadelfia" Joe Cuckor-ena.

"La calle" Fran Caprarena.

"Extraños en el paraíso" Jim Hamurhse-rena.

Aktoerik onena?

I.A. : Jack Lemon gustatzen zait Billy Wilderrekin. Baita Catherin Hepburn ere.


Musikaririk onena?

I.A. : "Muerte en Venecia" koa.

Fotografiarik onena?

I.A. : "El espíritu de la Colmena" n Luis cuadadorena. Nestor Almendrosen lanak ere aipagarriak dira, e.a.

Eta honenbestez, bukatutzat eman dugu elkarrikeria, eta datorren urtean ere Zine Kluba izango dugulakoaren itxaropenez agurtu dugu Iñaki.





Luis

Mazzantini

Eguía

Zezen hiltzaile ospetsu hau, Elgoibarren jaio zen 1856-eko Urriaren 10 ean eta Madrid-en hil 1926 an. Bere aita, Jose Mazzantini Baguchi jaun italiarra zen eta ama, Bonifacia Egia Egiño andere elgoibartarra.

Bere lehendabiziko urteak Elgoibarren pasa ondoren, Bilbora joan zen bere familiarekin, baita Marsella eta Italiara ere. Azkenik, Erroma-n egin zituen bere ikasketak.

1870 ean berriro Espainiara itzuli zen, Gorteiluko garrantzitsu baten idazkari bezala.

1875 ean Batxiler Artetako ikasketak buka-

tu zituen eta ondoren, trenbideetako langile egin zen. Alde batetik, gizon handinahi eta argia zen, eta bestetik, ezinbestez, bere lana zamatzat zeukan, familia mantendu behar bait zuen. Mazzantiniren kultura eza-guna zen profesionarien artean, horregatik "el filósofo" dei egiten zioten, eta honelako esaerak esaten zituen: "en este país de pro-saicos garbanzos no se puede ser más de dos cosas o tenor de la ópera real o matador de toros". Eta Mazzantiniren ahotsa polita zenez, Operako tenore izaten saiatu zen, hori aurrera eramateko Antonio Vico famatuare-kin hitzegin zuen baina honek ez zion itxaro-penik eman.


Porrot honen ondoren, Santa Olalla-n (Toledo) geltokiko buruzagi izatera iritsi zenean, jaregin zuen lana 1879.ean, Madrilen zekor-kari aurkezteko. (Ikasketa azkar batzuren ondoren, zekor-kari aurkeztu zen ofizialki Madrileko Zezen Plazan, 1879.eko Urriaren 27 an, 23 urte zituelarik). Bere garaiko toriatzaile ospetsuena bihurtu zen, garaipen ugari lortu zituen, bai bere estiloagatik eta bai bere kultura, apaltasun eta gizontasunagatik.

Nahiz eta lehenengo ekintzetan adi-onekoa izan ez, haseratik nabarmendu zen gorenengo suertea. Oso eguraldi txarra izan arren, 1883 ko Maiatzaren 3 an Espainiako Familia Errealak Madrileko Zezen Plazara joan zen Mazzantini ikustera.

Toriatzailea Alfonso XII.aren lagun mamia zen eta asko sentitu zuen bere heriotza. Hau zela eta, Don Natalio Rivas idazleak zera zioen "Toreros del Romanticismo" lanean: "De Mazzantini respondo, sin que me ciegue la parcialidad, que fué uno de los hombres de corazón más noble y caballeroso que he conocido. No era, pues, extraño, que el Rey y el súbdito, guardando las distancias

que impone el respeto, llegaran a profesarse recíproco y entrañable cariño".

1903.eko Irailaren 12 an, Alfonso XII.ak herriz herri egin behar zuen bidaia bat zela eta, Valladolid-en zezenketa bat antolatu zen. Bertara Familia Errealak joan zen. Toriatzaile ospetsuak, 47 urte izan arren, oso osorik gordetzen zituen arte eta adorea. Eta zezenketa honetan topa berezi bat egin zuen. Klarina entzun zenean, ezpata eta makuluz harmaturik, palku errearen azpian jarri zen, eta hurrengo topa egin zuen: "Señor, brindo por la salud de vuestra Majestad, por la de toda la Familia Real y vaya el más rendido y respetuoso recuerdo para la reina ausente". Maria Cristina erregina Viena-n aurkitzen zen orduan eta Mazzantini-aren hitz horiek oso hunkiturik utzi zuten Erregea. Zezenketa bukatu ondoren, toriatzailea palku errealera deitua izan zen, eta Erregeak maitekiro eskua emanez, esan zion: "No he querido dilatar ni un momento el expresarle mi gratitud por el delirado recuerdo que ha tenido para mi madre". Eta Mazzantini-ko, oso gizabidetsu, erantzun zion: "Señor yo no he recordado a Su Majestad La Reina por ser la augusta madre de Su Majestad,



sino porque es la vida de aquel gran Rey al que quise tanto, y que mis ojos no se cansaran de llorar su muerte". Erregea, toriatzailea besarkatuz, negarrez hasi zen zeharo eskertuz. Eta eskerrekotasun hori adierazteko, Alfonso XII.ak bere gorbatatik kendutako esmeralda eta brilliantezko orratz aberats bat oparitu zion. Horrelako opariak kontu handiz gordetzen zituen eta oso harro erakusten zituen ekintza garrantzitsuenetan.

Kultura handiko gizona zen (Batxiler Artea, Musika, e.a.), baina bere ezaugarri politiko-kulturalak ez dira hain ezagunak izan. Garai hartako toriatzaile gehienak alfabetagabeak zirenez, Mazzantini bere lanbidea goratzeko asmoz lan handia egin zuen, posible bait da Zezentaletasuna eta kultura bat eginik joatea. Arrazoi honegatik "el torero señorito" edo "el torero de las letras" dei egiten zioten.

Baita ere "el rey del volapie" deitua izan zen, 1904.ko Maiatzaren 14 arte, egun honetan "Guerrita"-rekin aldizkatuz hil zuen bere azken zezena Bartzelonan.

1905.eko Otsailaren 19 an bere emaztea hil zen Mexikon, eta gorpuarekin batera Espainiara itzuli zen Mazzantini.

Zezenketa utzi eta Politikan sartu zen. Alderdi liberalaren barruan izendapen garrantzitsuak lortu zituen: Poliziaren komisari Orokor, Soria eta Guadalajarako Gobernadore zibil, Madrilgo Alkate Ordezko eta Probintziarteko diputatu izanik.

Politikari eta toriatzaile honen ontasun

eta apaltasun apartekoak ziren, gainera toriatzaile berrien babeslea ere izan zen. Birtute horiek adierazteko, garai hartako kazetari batek idatzitako bitxikeri bat azalduko dugu: "Cuando los soldados volvian de Cuba, enfermos, extenuados, Mazzantini se encontró con un grupo de ellos en una fonda. El espada se llegó al "comptoir", pidió cuanto plata suelta hubiese, pagó un caldo y una copa a cuantos soldados los tomasen y repartió entre ellos la moneda. Gritó uno de ellos "¡Viva Mazzantini!", el matador respondió: "tengo un parecido con él. Os habeis equivocado".

Horrelakoa zen elgoibartar toriatzaile ospetsuaren izaera berezia.

Baita antzerki antzeslari ere izan zen. 1983.ko Martxoaren 31 an "Diario Cadiz"-ek ehun urte lehenagoko ekintza bat argitaratu zuen izenburu honekin "Mazzantini, un torero actor" Hortaz, aktore izateko ere ezaugarri onak zituen.

Hainbeste gaitasun ikusita, ez dago esan beharrik Mazzantini gizon argia zela, bere bizitza edozein sailetan nabarmenduz kokatzeko gai zena. Elgoibartar toriatzaile honen gaitasun politiko eta diplomatikoaren aurrean, mundua harriturik geratu zen.

1956.eko Urriaren 10 ean, Elgoibarko Udalak Mazzantiniren jaiotetxean oroitzgarritzko plaka bat ipini zuen eta bere inguruan ekintza ugari ospatu ziren. Horrelako pertsonai batek hori eta gehiago merezi bait du.




# test psikologikoa

??

\*  
o o o

...



Adikuntzako testen bidez, bakoitzak duen adikuntza maila zehatz daiteke. Ahal bada beste pertsona batekin egitea komeni den honек bakoitzaren adimen edo banakina neurtzeko aukera eskeintzen du. Unetxo lasai bat har ezazu eta jarri zure arreta guztia.

Test honen bidez, irakurleak bere adikuntza maila neurtzeko balio du. Idazki honetan esaten denez, hau ez da kontutan hartu behar. Beraz dena asmatzen dela eta, ez da arrotu behar eta are gutxiago etzi ezer asmatzen ez bada. Azkenengo aholku bat: tranparik ez egin. Test bukaeran puntuak gutxiago izateaz gainera, iruzur alfer alferrik egiten duzu eta jokabide honek zeure burua ez du poztuko noski. Papera eta arkatza har itzazu ... ea zer ateratzen den.

1.-Buruz jakina, honako zenbaki hauek idatz itzazu:

- a) Zure N.A.N.
- b) Gizarte Segurantzako zure kartila zbka.
- c) Zure gurasoen urteak.

2.-Sailkapena jarrai ezazu.

3 - 6 - 5 - 10 - 9 - 18

3.-Sailkapena begira 10 segundutan

R I G R A 5 R E 4 R O 3 R U R 2

Estal eta ber-idatz ezazu azpian


4.-XIV. mendean Praile talde batek San Pedro Glotonen jarraitzaile eta Frai Bitakoraren zuzendaritzapean, arabiarren bost altxor aurkitu zituzten, hoietako bakoitza, urrezko hiru kopaz, esmeraldazko 2 zamakoz eta 30 zilarrezko txanponez osatuta zegoen. Fraileak zortzi zirenez banatzerakoan arazoak izan zituzten, eta azkenean, Hueskako Anso deritzan herrian gordetzea erabaki zuten. Handik urte batzuetara, zazpi urteko haur batek hori aurkitzerakoan aberastu egin zen, eta, bere lagun, osaba eta lehengusak konbidatu zituen. Begiak itxi, 20arte kontatu eta begiratu gabe idatz ezazu:

- a) Altxorra gorde eta zenbat urtetara aurkitu zuen umeak?
- b) Zenbat txanpon zegoen danera?
- c) Zelakoak ziren kopak?
- d) Nor konbidatu zuen haurrak?


5.- Demagun A,S,R eta O hizkiei 1,2,3 eta 4 zenbakiak dagozkiela, hizkietara aldatuz osa itzazu ahal duzun esanahidun esaldirik gehien. Adibidez, 133421 ARROSA izango litzateke. 30 segundu dituzu.

6.- Ze bitxikeri ikusten diozu esaldi honi?  
OLIO ERRE OILO.

7.- Behean dagoen ze marrazkik darraikio goiko sailkapenari?



8.- Hamar kontatu bitartean begira ezazu marrazkia



Estal eta margo ezazu

9.- Arkatz eta paper gabe "buruz" asma ezazu honako hau:

Kotxez hegoalderuntz 4 kilometroko bidea egin nuen; ezkerrera hartu eta ekialdera 2 km. Berrira ezkerrera hartu eta 2 km. gehiago. Abiapuntutik ze denborara nengoen? 15 segundu dituzu erantzuteko.

10.- Hiru lagunen jaiotegunak idatz itzazu.

- a)
- b)
- c)

11.- Esaldia astiro irakurri eta behin bakarrik.

Eltxoak duen gauzarik gogaikarriena bere zarata da. Bat entzuten dudanean belarriak isteko gogoa etortzen zait eta, entzun gor egiten diot.

Tapa itzazu eta idatzi berriz.

12.- Hamar kontatu arte begira ezazu argazkia. Estal eta gogoratzen dituzun gauza guztiak idatz itzazu.



13.-  $B + D = 6$  eta  $A + B = 3$  badira.

$E + H + D$  zenbat izango litzateke? (10 seg.)


14.- Zenbaki honako sailkapen hau irakur ezazu:

6 7 3 4 5 8 2 9 1 6 3 4 2 1 5 8 3

Estal eta azkenengo lau zenbakiak idatz itzazu:

15.- Laranja bat eta erdik pezeta bat eta erdi balio badu, zenbatekoa izango da bost laranja eta erdiren salneurria? (10 segundu)

16.- Beheko ze marrazkik jarraitzen dio goiko sailkapenari?



17.- Bi lagun ibilalditxo bat egitera doaz. Mirenek 1.250 pezeta daramatza eta Anek 725. Biak 80 pezetatako izozki bana erosi eta denda batetara sartzea erabaki zuten. Han, Mirenek 500 pezetatako diska bat eta Anek 250 pezetatako liburu bat erosi zituzten. Irtetzerakoan, Anek gelditzen zitzaion diruarekin boltsa galdu zuen.

Berriz isotorioa irakurri gabe:

- Anek zenbat diru galdu zuen?
- Haseran bien artean ze diru zeukaten?
- Zenbat gelditzen zitzaion Mireni?

18.- Hamar urte hauetan ikusten ez dituzun ikastetxeko hiru lagunren izen eta gutxienez abizen bana eman.

19.- Ze galdera zen lehenengoa?

#### AZALPENAK

- a) Igarri baduzu, puntu 1, b) Igarri baduzu 2 puntu, c) Igarri baduzu, 2 puntu.
- 17 (2 puntu)
- Dena ondo, 5 puntu. Akats bakoitzeko puntu bat gutxiago.
- a) Igarri baduzu, puntu 1, b) puntu 1, d) 2 puntu.
- Hitz bakoitzeko puntu bat.
- Kapikua da: 3 puntu.

7.- Erantzuna: B; 2 puntu.

8.- Oso ondo: 4 puntu. Akats bakoitzeko puntu bat gutxiago.

9.- Abiapuntuan egongo da. Igarritz gero 2 puntu.

10.- Egun zuzen bakoitzeko, puntu 1.

11.- Oso ondo: 3 puntu. Akats bakoitzeko, puntu bat gutxiago.

12.- Gauza bakoitzeko, puntu 1/2.

13.-  $B+D=6$  eta  $A+B=3$  badira, hizki bakoitzak alfabetoan dagoen lekuaren arauera balio du. Beraz, erantzuna 17 da. Igarri baduzu, 3 puntu.

14.- Asmakizun bakoitzeko, puntu 1.

15.- 5 pezeta eta erdi, 2 puntu.


16.- C erantzuna, 2 puntu.

17.- Asmakizun bakoitzeko, puntu 1.

18.- Gogoratutako izen bakoitzeko, puntu 1.

19.- Gogoratzen baduzu: 2 puntu (Iruzur bakoitzeko puntu bat gutxiago).

Lortu duzun zenbakiaren arauera, zure Adimen Maila ziurta ezazu mailen irudizko marrazki honetan:





# EUSKERA MINTEGIA

♦ ♦ ♦ ♦ ♦



♦ ♦ ♦ ♦ ♦

Dagoeneko hamabi urte pasa dira, 1976-77. eko ikasturte hartan Elgoibarko Batxillergo Ikastetxe Publikoak lehenengo aldiz bere ateak ireki zituenetik. Momentu hartan, modu batean edo bestean irakaskuntzaren munduan murgildurik zeuden kolektibu desberdinen buruetan, irakaskuntza ertaineko zentru hark aurrerantzean izango zuen antolaketa eta etorkizunaren aurrean galdera ugari azaldu ziren. Tankera honetako proiektu harek sortarazi zituen kezka guztien gainetik, batek larritzen zuen, batipat, urte askotan euskarazko irakaskuntzaren alde borrokatu zutenen pentsamendua: irakaskuntza ertaineko ikastetxe euskaldun baten beharra.

Ikastolan aritutako ikasleek Oinarrizko Ikasketak euskeraz egiteko aukera izanik ere, hizkuntza honetan hartutako ikasketek irakaskuntza ertainen jarraipenik ez izateak urte askotako lana zalantzan jarri zezakeen.

Batxillergo Ikastetxe berria martxan hasi berria zen, eta momentu egokiena zirudien aipaturiko ideia horri aurre egiteko.

Arrazoi nagusi honegatik, ordurarte ikastolan ibilitako zenbait irakaslek Instituturako pausoa ematea erabaki zuten. Oposizioak gainditu ondoren, Anjel Ugarteburu, Andres Alberdi, Iñaxio Garmendia eta geroago Miriam Villasantek osatutako laukoteak, Elgoibarko Batxillergo Ikastetxeko Euskarako Mintegia osatu zuten, beste helburu batzuen artean, ikastetxe horretan euskararen presentzia eta garrantzia altxatu nahiean. Gai guzti hauetaz, eta azkenengo bolada honetan irakaskuntza ertainean gertatzen ari diren arazo eta grebei buruz hitzegiteko, Txitxilibakio aldizkaria Batxillergo Ikastetxeko Euskerako Mintegira hurbildu da, lau irakasle hoiekin solasaldi bat izateko asmotan.

Euskalerriko beste irakaskuntza ertaineko zentru gehienetan bezala, Elgoibarko Batxillergo Ikastetxearen hasiera hartan, euskarazko irakaskuntzaren bidea ez zen batere argi ikusten. Gainditu beharreko trabak eta lortu beharreko helburuak ugariak ziren; trebetutako maixu euskaldunak, bitarteko eta zerbitzu gehiago, plangintza baten beharra ...

Baina ikastolan eskeinitako ikasketek jarraipen pedagogiko eta linguistiko bat izan behar zutenaren uste osoz, ateak ireki berria zituen ikastetxe hura euskalduntzeko ideiari ekin zitzaion. Momentu hartan bi posibilitate planteatu ziren gure herrian irakaskuntza ertaina euskalduntzeko. Aukera bat ikastolako edifizioa anpliatu eta Lizeo gisako ikastetxe bat eraikitzea izan zen, eta bestea, ordurako martxan hasi berria zen Batxillergo Ikastetxea izatea ideia horren kokapen gunea.

Bi alternatiba hauek aztertu ondoren, azkenik Batxillergo Ikastetxearen aldeko apostua egin zen. Pausoa emana zegoen, orduan, administrazioetik "esperientzia pilotoa" bezala kontsideratu zen proiektuari ekin behar zitzaion.

### BALANTZE POSITIBOA

Ordudanik egindako lanaren eta ahaleginaren berri jakitzeko, sinplifikazioan ez jaustearren zifretara joko dugu, datu adierazgarriak erakusten digutela pentsatuz.

Gaur egun Batxillergo Ikastetxeko %60 aren ikaslegoak euskera hutsez hartzen dituzte ikasketak, %10-ra alfabetatze prozesuan ari da eta %30-ak A eredia jarraitzen du, hau da, ikasle hauek Euskera beste edozein asignatura bezala ikasten dute.

Hau honela izanik, urte hauetan egin den lanaren balantze bat eskatu diegu Euskarako Mintegiko lau irakasleei. "Orain arte lortu ditugun emaitza hauek ikusirik, oso gustora gaude egin den lanarekin. Maila batean, ikastetxe hau euskalduntzea lortu da, baina oraindik gauza asko daude egiteko sail honetan. Bestalde, uste dugu ikastetxe honek bereganatu duen plangintza hau egokiena dela ikasle erdaldunak euskalduntzeko prozesua posiblea izan dadin". Hala ere, hasiera hartan aurreikusi ziren beste zenbait helburu, oraingoz behintzat ez direla lortu adierazten digute elkarrizketatuek. Honetatik aipagarriena gurasoen partizipazioa eza eta irakasle, ikasle eta gurasok osatzen duten hirukiaren arteko harreman falta izan daiteke.

"Herriarengandik urruti ikusten dugu irakaskuntza ertaina. Bai herriko agintariek, bai jendeak berak ere, gure ikastetxea mundu aparte bat bezala ikusten dute. Gurasoen partetik, adibidez, ez dugu partehartze aktiborik ikusten, eta horrela oso zaila da arazoak konpontzea. Beraiek ere gauza asko egin dezakete. Honetaz gain, irakaskuntza gidatzen duen administraritza betidanik oso urruti ikusi izan da, eta honek, dudarik gabe, arazo hau areagotu besterik ez du egiten".






## GREBEN ARAZOA

Azkenengo hilabeteetan, greba arazoak direla eta, Irakaskuntza notizia bilakatu da, beste zenbait kasutan gertatzen den bezala, gai eztabaidagarri eta gatazkatsu bat dela medio. Bukatzear dagoen kurtso honetan irakasleek aurrera eraman dituzten greben zergatia galdetzerakoan, lau elkarrizketatuen erantzuna hau izan da: "Laburtuz, gure eskakizun nagusiak hiru izan dira; alde batetik irakaskuntza ertainaren planifikazio egoki bat eskatu dugu, irakasleen euskalduntze prozesua azeleratuz, ikastetxeei zerbitzu eta ekipamendu gehiago eta hobeagoak emanez eta irakasle bakoitzak izan behar dituen ikasle kopurua jeitsiz. Bestetik, eta beharbada puntu garrantzitsuena bezala, irakasleen estabilitatea aldarrikatu dugu, hau da, lan postuaren egonkortasunaren eta zihurtasunaren beharra, irakaskuntza publiko, kalitatezko bat lortzeko prozesuan. Hirugarrenik, Euskal Gobernuko beste funtzionarioekin homologatzea eskatu dugu".

Tirabirak, batez ere azken asteetan, areagotu egin dira irakasle eta administraritzaren artean. Euskarako Mintegiko lau irakasleek adierazten duten bezala, "Denon gustoko akordio batetara iristea zaila izango da, baina beharrezkoa iruditzen zaigu irakaskuntza publiko ertainean zenbait aspektu aldatzea, irakaskuntza honek etorkizun esperantzagarria izan dezan".

Elkarrizketari bukaera emateko, irakaskuntza ertain publiko euskaldunak izan dezakeen etorkizunaz galdetu diegu Euskerako Mintegiko irakasleei: "Lan egiteko gogoia eta borondatea izanez gero, etorkizuna gure esku egongo litzateke. Arazoak asko dira, baina ez gaindi ezinak.

Lehen ez geneukan ez ikastolarik ezta ere Batxillergo ikastetxerik eta gogo ugari zen. Orain biak ditugu, baina badirudi adorea edo gauzak egiteko borondatea falta dela".



# BASARRIK

# ELGOIBARRI

Paper zaharrak miatzen ari ginelarik, hara non orain dela urte mordoska bateko San Bartolome jaietako egitarauetan Basarriren bertso sail polit batekin egin genuen topo. Hain justu ere, 1955 eta 1957 urteetako programetan azaldu ziren aipaturako bertsoak. Eta ikusirik nolako "lorak" bota zizkien orduko Elgoibar eta elgoibartarrei, ongi eritzi diogu berriz ere argitaratzeari, horrelako bertso "goxoak" irakurtzea gustagarri egingo zaizuelakoan.

## "ELGOIBAR PAKETSU TXALOGARRIARI"

I  
Mendi gallurrez inguratuta  
goxoki dagon kutuna,  
Deba ibaian ertzean dago  
guri atsegiñ zaiguna.  
Ezpañetatik kendu eziñik  
erabilitzen deguna,  
Erri paketsu ta langille bat  
izena Elgoibar duna.

II  
Oso goieko malletaraño  
iritxi zera industriz,  
Ta Elgoibar'ko lan - mota danak  
fama ona dute guztiz.  
Zarrak biurtu albalitezke  
lur otzak alde bat utziz,  
Zer pentsatuko ote luteke  
gaur zu zerana ikusiz?

III  
Ainbeste fresna ateratzen da  
Elgoibartar eskutatik,  
Eskea dago barrendik eta,  
eskea gaur kanpotatik.  
Ondo bukatzen dan lanak eztu  
erostun onaren paltik,  
Izen onari gogor eusteko,  
jarraitu bide ortatik!

IV  
Aurrera gogoz, elgoibartarrok,  
biarkoaren kezketan,  
Indartu bedi zuen izena  
etxean da erbestetan.  
Alaitasun bat erne dedilla  
zarretan eta gaztetan,  
Ondo jolastu, anai maiteok,  
zuen erriko pestetan.

BASARRI.

-1955-



# Elgoibar Langilleari

---

I

Ben-benetako adiskideak  
datoz bertso batzun eske,  
Ederrik inoiz asmatzekero  
oraintxe asma litezke.

Zuri eskeñi nai nik, Elgoibar,  
loretxo bat edo beste...  
Alare etzaitut ez goralduko  
merezi dezun ainbeste.

II

Mendi bikañak or jeiki zirau  
zuri guardi egitera,  
Deba ibaiak bustitzen zaitn  
komeni zaizun aldera.

Zure semeak nagirik gabe  
emanak daude lanera,  
Argatik zoaz gogor indartzen  
egunetik egunera.

III

Lanaren bidez iritxi zera  
guziz gorengo neurrira,  
Zure aurreko guraso zarrak  
eztauzkatzu gaur begiar.

Orain larogei urte sartuak  
erri ortan luz azpira,  
Zer pentsatuko ote luteke  
berriz piztuko balira?

IV

Konturatuta bizi gera gaur  
gipuzkoatar bakoitza,  
Txit aldatua dagola lendik  
erri ortako bizitza.

Industriaz lenen mallan zaude- ta  
indartzu nekazaritza,  
Negarrik ezin jo zenezake  
Elgoibar, ondo zabilta.

V

Elgoibartarrok deporte- zale  
sutzuko zerate oso,  
Ta pelotaren izena ere  
etzenduten gutxi jaso.

Orko semeak agertzen ziran  
frontoietakoko guraso,  
Baltasar eta Arriola bat,  
gero Zabala ta Artazo.

VI

Astén zeraten alderdi artan  
beti ortzak erakutzi,  
Aspalditxoko urte auetan  
ezta or azio gutxi.

Or ainbat sari edo premio  
bestetan eziñ ikusi,  
Ostikoketan noiznai zerate  
Gipuzkoa'ko nagusi.

VII

Jarrai, Elgoibar, aurrerantz ere  
frutu bikañak emanez,  
Zure gradurik ez leike artu  
alperkerian egonez.

Gaiko Jaun onak danok beteko  
altzaituzte zorionez,  
Anci- arrebok ongi jolustu  
aurtengo San Bartolomez.

Zarautz, 27-7-1957

“BASARRI”

## EUSKARA ELGOIBARREN GERRA ONDOREN

Euskararentzat oso urte txarrak izan ziren gerra ondokoak. Ni 1934. urtean jaio nintzen eta urte horien lekuko naiz, bete betean harapatu bait ninduten.

Kalean batez ere beherakada handia egin zuen euskarak Elgoibarren. Eskolan dena erdaraz ikasten genuen. Ni Elgoibarko eskolan sei urtetatik hamaika urte bitartean ibili nintzen. Bi maisu hartu nituen eta biak erdaldunak.

Elizan gauza beratsua zen. Guk dotrina oso erdaraz ikasi genuen. Gerra aurretik ia den denek euskaraz ikasten zuten. Gu hamaika senide ginen eta neba-arreba zaharrenek, denek, euskaraz ikasi zuten. Bi gazteenok, ostera, erdaraz.


Elgoibarko kalean erdaraz egiten genuen oso sarri umeok. Etxean gurasoekin beti euskaraz. Nik gurasoei elkarrekin erdaraz egiten ez nien sekula entzun.

Kanpoko giroa zen txarra, eta guk euskaraz jakin arren, giroaren eraginez gu baino errazago lerratzen ziren erdarara.

Ni neu hamairu urterekin ohartu nintzen euskaldun nintzela. Kolegioan nengoen, Durangon, eta inork ezer esan gabe, euskaldun izan eta erdaraz egitea aldrebeskeria zela ikusi nuen. Euskaldunok euskaraz egin behar genuela, alemanak alemaneraz edo inglesak ingelesez mintzo diren bezala.

Euskal kontzientzia hori hartu eta berehala hasi nintzen euskararen alde lan egiten. Lan egin baino gehiago euskararen alde hitz egiten. Jakina, hasteko etxekoekin eta ene inguruan bizi zirenekin.

Etsipen handia zegoen orduan bazterretan. Jakina, ez zen ez ikastolarik ez inongo laguntzarik euskararentzako. Trabak eta zigorrak eta beldurra bai.



Euskararen alde zerbait egin behar genuela esan eta berehala erantzungo zizuen: "Euskara pikutara joan dok, motel. Eztao ezer egiterikan". Eta hori esaten zutenak euskara maite zutenak ziren. Horrela ikusten zuten euskararen etorkizuna. "Arenak egin dik".

Zorionez, baziren Elgoibarren hori sinesten ez zutenak. Zintzo eta ekintzez euskara zuzpertzten ahalegintzen zirenak. Nik Felix etxeberria (Parapan) eta Zubiaurretarrak ditut burutan une honetan. Ez dut esaten beste asko ez zegoenik. Horiek, ni neu beroiekin harremanetan nembilelako aipatzen ditut.

Hauxe ikusten nuen nik Elgoibarren eta bai beste zenbait herritan ere: bazirela langile sutsuak, euskaltzale bizkorak. Sua ez zegoen iraungia, emetatuta. Bazen sua, hautsen azpian izkutaturik egon arren. Guk gelditzen zen suari erregaia eman eta putz egin behar genion, su handia egiteko.


Erabat sinetsirik nengoen ni orduan ere historia ez dutela egiten talde ttikiek baizik. Besteak, euskal esana den bezala, "norat haize harat aise". Hau da, jenderik gehiena ez da gauza urlartxerrean behetik gora igerian egiteko.

Giroa aldatu beharra zegoen. Noiz etorriko zen giroa aldatzeko aukera? Hain zuzen ere, mundu-gerla bigarrena amaitu eta Euskal Herrira milaka erdaldun etorri ziren.

Lehenago euskara eri handi bazegoen, orduan hil zorira etorri zen. Kanpotik zetozen erdaldunei erraztasun guziak ematen zitzaizkien, beren erdal kulturaren hazteko. Bertakoei, euskaldunoi bat ere ez. Irakurrita daukat 1950-tik 1960-ra bitartean Elgoibar 5.000 bizilagunetatik 10.000 ra igaro zela. Etorri berriak gehienak erdaldunak ziren. Euskararentzat jipoi izugarria huraxe.

Gu haurrak ginenean Elgoibarren ia ez zen erdaldunik. Kanpotik etorritakoek ere euskaraz ikasten zuten eta bertakotu. Horrenbeste kanpoko jendea batbatetan etortzea, oster, munduan toki gutxitan gertatu da.

Halere ez zen dena galdurik. Harrokerietan ihardun barik esan beharra dago euskaldunok oso indartsu eta kementsu gara. Dena galdurik zegoela ematen zuen. Ez zen horrela, ordea. Poliki poliki euskal kontzientzia pizten hasi zen eta ikastolak jasotzen.



Guk gerra ondoko giro hura bizi genuenok, oraingo giroa ikusi eta zalantza askorik gabe aitortzen dugu: orain Elgoibarren euskara hobeto dago, euskaraz gure ume denboran baino gehiago egiten da, eta herrian guzien aldetik euskerarentzako begirune ez ezik maitasun handia ere sumatzen da.

Hau ez da ene ustea bakarrik. Elgoibarren egin izan diren ikerketek euskaraz gero eta gehiago egiten dela erakusten dute.

Horixe da gure poza. Elgoibarren egungo egunean dagoen giroari begiratu eta euskararen alde horrenbeste jende jator lanean jo eta ke ari dela ikusita, egun batez berriz ere Elgoibar herri zeharo euskalduna izango den itxaropena dugu. Pedro Migel Urruzuno elgoibartar idazle handiak ezagutu zuen bezalakoa.

Lehenbaitlehen horrela izan dadila.

**Gotzon Garate**



\*Txinatar horoskopoa ezberdina da, hila-  
betez hilabete joan beharrean urtez  
urte doa, adibidez 1988 ko urtea Dra-  
goiaren urtea izango litzateke.



**ARRATOIA:** 1912-24-36-48-60-72 eta 84 urteetan jaioak.  
Erasokor eta xarmagarria, besteak bapatean erakartzeko  
ahalmena du. Gehienen eritziz, zoragarria eta orekatua da  
baina bakarka zikoitz eta haserrekorra da.



**BUFALOA:** 1913-25-37-49-61-73 eta 85 urteetan jaioak.  
Beti ere, lasaia eta patxadakoa, ez du aurkotasunik onar-  
tzen eta bere haserreak beldurgarriak dira. Izatez, kon-  
tserbadore eta tradizionala, bere arriskurik handiena fa-  
natismoa da. Paternalista, etxekoi eta ohiturazalea.



**TIGREA:** 1914-26-38-50-62-74 eta 86 urteetan jaioak.  
Araugabea eta zitala, arriskua gustatzen zaio. Berezko a-  
ginpide baten jabe da. Burugogor eta gudularia, gauza txi-  
kietarako berekoi eta handietarako eskuzabal. Hunkibera da  
eta maitatzeko ahalmen handiaren jabe da.



**KATUA:** 1915-27-39-51-63-75 eta 87 urteetan jaioak.  
Batzutan handinahi eta sofistikatua, lagun zuur eta atse-  
gina dirudi. Sasi-jakintsu eta harroa. Trebea eta diploma-  
tikoa. Ez du familia espiriturik eta askotan aldatzen du  
bikotez, baina estimatzen dituen pertsonekin leiala da.



**SUGEA:** 1917-29-41-53-65 eta 77 urteetan jaioak.  
Txinatarren artean animalia jakintsu eta azkarrena da,  
baina baita ere posesibo eta xurgakariena. Beti proposatu-  
takoa lortzen saiatzen da. Humore onekoa eta intuikorra.  
Arrazonatzea eta filosofatzea gustatzen zaio. Jeloskorra  
da, eta maitasun abenturak gustukoak ditu.



**ZALDIA:** 1918-30-42-54-66 eta 78 urteetan jaioak.  
Buruz, oso argia da eta jende artean gustora aurkitzen  
da. Sarritan politikan eta erlazio publikoetan garaile ir-  
tetzen da. Norberekoaia eta egozentrikoa. Hauetariko batzuk  
besteen arazoetaz arduratzen badira ere, gehienak handi-  
nahuak dira. Maiatale aldakorra izaten da maiz.

■ ■ ■





**AHUNTZA:** 1919-31-43-55-67 eta 79 urteetan jaioak.

Alditsua, ezkorra, antsiatsua eta askotan kezkarria. In-  
guru bere aurka dagoela ikusten duenean konformagaitz bi-  
hurtzen da. Erosotasuna maite du. Egokitasunezko ezkontza  
bat lor dezake, eta agian bere isileko ametsa baserri eder  
batetan bizitzea da.



**TXIMINOA:** 1920-32-44-56-68 eta 80 urteetan jaioak.

Humore onekoa da, burutsua eta alaia. Guztiz jakintsua, be-  
rarentzat dena da interesgarria eta gai guztietaz uler-  
tzen du. Ezin zaio ezer ezarri, dena aukeratzea ohitua bait  
dago. Kezka gutxi duen pertsona da eta bere armarik onena  
lotsa galdua da.



**OILARRA:** 1921-33-45-57-69 eta 81 urteetan jaioak.

Esku-zabala da, lausengeriak gustukoak ditu eta pentsatzen  
duena argi eta garbi esaten du. Egiten duen guztia ziurta-  
sunez egiten du, adoretzu eta berritzaile agertzen zaigu  
eta aginpiderako balio duen pertsona da. Nagikeria eta ames-  
lari izatea dira bere akatsik handienak.




**TXAKURRA:** 1922-34-46-58-70 eta 82 urteetan jaioak.

Guztiz bidezko eta egokia, gutxitan azaltzen ditu bere be-  
netazko sentimenduak. Minoritarioa, gizarte konbentzionalis-  
moak errefusatzen ditu. Ez da erasokorra baina bai suminko-  
rra. Beti erne dago eta defentsiban. Kausa noble baten alde  
beti gogor borrokatzen du. Maitasunerako leiala da.



**TXERRIA:** 1923-35-47-59-71 eta 83 urteetan jaioak.

Gizabidetsu eta zentzuala, eletari ona eta lagun sexual in-  
teresgarria. Fidakorra da eta batzutan sineskorra baita ere/  
Gezurak defenditzeko bakarrik esaten ditu, eta bere ekin-  
tzetan zuzen eta leial agertzen da. Pertsona jakintsua da.  
Sarritan, lizunkoia dirudi eta bere akatsik handiena azal-  
keria da.



**DRAGOIA:** 1916-28-40-52-64-76 eta  
88 urteetan jaioak.


Txinatarrek nahiago duten zeinua  
da. Dragoia oso bizizalea da eta  
bihotz handikoa. Perfekzioaren bi-  
lala dabil beti eta askotan arra-  
zoizoi gabe oinazetzen da. Oso ha-  
rroa da, baina siniskorra denez  
gero askotan zirria sartzen diote.  
Beti izan da garaile. Normalean,  
lagun asko ditu baina maitasu-  
nerako ez du suerte handirik:

## HAMAR MINUTUKO "EGURRA" GORPUTZARI


*Sail honetan beste era bateko artikulua mota bati ematen diogu hasiera oraingoan. Zenbait kapitulutan, tenk eginda eukitzen dugun geure gorputza piska bat askatzeko ariketa erraz batzu eskainiko dizkizuegu. Oso ariketa samurrak izango dira, ofizialista geldoenak ere nekerik gabe egingo dituenak. Gainera jende mota horrentzat atera nahi dugu artikulua sorta hau. Kirolen bat praktikatzen dutenek nahikoa lan dute beren entrenamendu, partidu, korrika-saio eta abarrekin. Ondoren datozen ariketa guztiok hamar minututan egiten dira. Batzuk goizean goiz egitea nahiago izango dute, baina hori ere librea da. Edozein ordu da ona. Hurrengo kapituluan antzeko ariketa batzu aurkeztuko dizkizuegu.*



Zutik postura lasai bat har ezazu eta, oso poliki, burua mugitzen hasi buelta osoa eman arte. Ez okertu bizkarra, beti tente egon zaitez. Burua mugitu ahala, zenbait posturatan muskuluek min hartzen dutela konturatu zara. Hori gertatzen denean, postura horixe eutsi piska batean. (Bost aldiz ezkerretik eskuinaldera eta beste bost alderantziz).




Horrela zaudela, bizkarra estutu behar duzu, bi omoplatoak bata bestearekin elkartuz. Mugimendu honetan bularra altxa egingo zaizu. Horrela lauzpabost segundo egindakoa, piska batean deskantsatu eta berriro hasi (Bi aldiz estutu behar bizkarra, aldi bakoitzean bost segundoz).



Bizkarrezurraren beheko partea lasatzeko da mugimendu hau. Kuestioa da ipurdia altxatzea eta goian edukitzea bost-zortzi segundoz. Horrela zaudela, saia zaitez muskulu guztiak tenk eginda edukitzen. (Bi altxaldi, bakoitza, esan bezala, bost-zortzi segundotakoa. Berriro hasi baino lehen, deskantsa ezazu pizka batean).




Oso postura lasaia da honako hau. Bakar-bakarrik oinen postura kontuan hartu behar duzu. Irudian bezala egon behar dute, bata bestearen kontra. (Hogei segundoz).



Ezkerreko hankak tira egin behar dio eskuinekoari, aldaka osoa eta izterrak tentsioan sentitu arte. Mugimendua egiten duzun bitartean bi besoek zoruaren kontra egon behar dute. Ez da beharrezkoa belaunarekin lurra ukitzea hori oso jende gutxi egin dezake eta. (Hogei segundoz alde batera eta beste hogei bestera).




Burua luzatuta dagoen beso alde-ra okertu behar duzu. Bizkarreko goiko partea ez duzu mugitu behar, zoruaren kontra egon behar du. Bitartean, oinek eta orkatilek erlajatuta egon behar dute. (Hogei segundoz alde batera eta beste hogei bestera).



Eskuak ez dituzu lepoan jarriko, belarrien kontra baizik. Goraka tira egin behar duzu, lepoko beheko partea estututa sentitu arte. (Hiru aldiz, bakoitza bost segundotakoa).



Hemen egin behar duzuna zera da, muskulu guztiak —eskuetatik hasi eta oinetako behatzetaraino— tentsioan jartzea. Hankak aurrera tiratu behar dituzu eta besoak atzera (Bi aldiz, aldi bakoitza bost segundotakoa).




Ahal baduzu, hanka bularraren kontra jarri behar duzu. Horraino iristen ez bada, ez nekatu. Postura erraza da eta ez dizu lanik emango. (Hanka bakoitzarekin hogeitasegundoz egon behar duzu horrela).




Beste ezeren aurretik, bata bestearen kontra ipini behar dituzu bi oinak. Ondoren, bizkarra aurreratu egin behar duzu, izterondoak lanean sentitu arte. Mugimendua bizkarrak egin behar du, eta ez buruak edo lepoak. Mugimendua egiten hasi aurretik, ondo jarri ipurdia, bestela gero alde batera okertuko zara eta. (Posturari hogeita hamar segundoz eutsi behar diozu).



Bizkarrak lan egin behar du mugimendu honetan. Eskuineko besoak altxatuko belunaren kontra indar egiten duen bitartean, bizkarra ahal duzun guztia okertzen saiatu behar duzu. (Hamar segundoz alde batera eta beste hamar bestera).




Eskuineko hankak ipurdia ukitu behar du. Ezkerrekoak, berriz, beluna. Horixe da lan guztia. Eskuineko izterra nekatzen dela ikusiko duzu. (Hogeita hamar segundoz alde batera eta beste hainbeste bestera).



Postura hau orkatila indartzeko da. Eskuaz buelta osoa eman behar diozu orkatilari. (Hamar buelta alde batera eta beste hamar bestera eta, ondoren, postura aldatu eta beste orkatilarekin hasi).



Orpotik behatz lodira doan muskulua harrapatu behar duzu eta gogor igurtzi alde guztietara. (Hogeita hamar segundoz oin bakoitzean).



Horrela makurtuta zaudela aurrera egiten duzunean, orkatila lanean hasten dela sentituko duzu. Horixe da, hain zuzen, mugimendu honen helburua, orkatila lanean jartzea. Mugimendua egiten duzunean, ezinbestean orkatilak piska bat gora egingo du eta ez hasi oin osoa zoruaren kontra eduki nahian. (Hamabost segundoz hanka bakoitzean).

# DISKOAK



Hertzainak. *Salda badago*. (Elkar). Hertzainak talde gasteiztarrak 1984ean bere lehen LPa grabatu zuenean euskarazko musikan zerbait aldatu zen. Euskararen erabilera fresko, «lotsagabe» eta zuzena harrigarria gertatu zen. Gero hain eragin handia izan duen *reggae* aide hura sartzea bezala. Beste herrialde batzutan sakondutako planteamen-

du musikal eta ideologikoak ziren, baina Euskadi, jakineko arazo historikoak zirela medio, berandu iritsi zen, beste hainbat gauzataraz bezala.

Gero dozenaka mutikoren fotokopia etorri zen, estilo hori hobetu nahian (edo Kortatu eta La Polla Records-ena). Eta Hertzainak, zintzotasunez jokatu, nahiago izan zuen bira ematea, *reggae* itxura alde batera uztea eta baita ia eskatu gabe ezarri zioten etiketa politikotatik aldegitia. *Dribling* horretarako erabili zuten tresna euren bigarren diskoa izan zen: *Hau dena aldatu nahi nuke*. Baina errealitateak ideiak baino ia gehiago ahal izan zuen eta azken emaitza, kontrako zirkuntantziek oztopatuta, polemikoa eta nahiko dezepzionagarria gertatu zen.

Orain egiaren ordua, heldutasunarena, euren karrerari aurre ematekoa iritsi da. Eta berriro zorte txarrak jo

dio taldeari. Baina orain eragozpenei aurre ematen eta pazientzia, medio eta laguntza gehiagorekin (Jean Phocas teknikari eta Ruper Ordorika produktore bezala) lan egiten jakin dute. Suposatzen da gainera Elkar-ekin sinatzeak ekintza ahalmen gehiago eman dietela.

Honela *Salda badago* hau taldearen lana eta heldutasuna erakusten duen diskoa da. *Reggae* arrastorik ere ez da ia gelditzen eta garuko *rock*-a, bere alde bokalean oraindik gorpuztugabea, nagusi da. Kantu trinkoak, ezarkuntza instrumental ona, bakarrik «oihu egin» beharrean tarteka «kantatzeko» gai den Gari- ren hobekuntza, *Esaiok* bezalako esperimendu interesgarria eta *No Time for Love*-ren folk-rock bertsioa. Edo *Ez dago ilusio falsurik* bezalako kantu bikainak. Zorionak gasteiztarrori, *euskarazko rock*-aren panoramari mesede eskertzeko egin diotelako: bazegoen behar bezala egingdako kanten premiarik, eta talde honek hutsune hori betetzera jo du.

# ZINEA

Seguru aski mesede ederra egin zion filme honi Estatu Batuetako Eliza Katolikoak «moralki mingarritzat» jo zuenean. Hura eta gero sortu zen iskanbilak jende guztiaren ahotan jarri du pelikula eta era guztietako jendeak hasi da eritzia ematen: Zeffirellik, Calcutako Teresak... eta baita Alfonso de Borbón-ek ere, Frantziako Koroaren ordezkari gisa. Orain bazter guztietan jendea eta jendea zai pelikula noiz botako.

Ikusle asko eskandalu bila besterik ez da joango pelikula ikustera, zorioneko eszena erotiko horiek ikustera eta kitto. Baina pelikula hortan bestelako gauza asko dago: fedeari buruzko burutzio ugari, eta baita Jainko, gizatasun, amodio eta indarkeriari buruzkoak ere.


Pelikulak kristau ortodoxo baten literatur obra hartu du oinarritzat, Nikos Kazantzakis-ek burutu zuena hain zuzen. «Zorba el griego»-ren autore dugu greziar hau. Gidoia, berriz, lanean oso zehatz eta prepezio handiko den kristau kalbinista den batek egina da; Schraeder, hain zuzen, «Taxi Driver»-eko gidoia prestatu zuena. Eta zuzendaria, aldiz, katolikoa dugu.

Istoria burutzean, ematen du Schraeder-ek pentsatu duela ikusleak dezente jakin behar duela Kristori buruz, ze pelikulan Jesukristok bere jainkotasunari buruz azaltzen dituen dudak, Bibliako pasarteetan oinarrituak egonda ere ez dira hain ezagunak.

Pelikulak ekarri duen istilu pila eta gero, «La última tentación de Cristo» ikustera doan jendeak doble lana izango du: batetik, kasu egin beharko die pelikulan azaltzen diren jardun luzeei eta, bestetik, karamelu jaten eta berriketan ari diren jardunak ere eraman beharko ditu. Ikusleetako asko eszena erotikoez tilin eginda azalduko bait dira aretora.

Pelikula rigurosoa da. Bergmanen filmeak bezalaxe, jende mota guztientzako da interesgarri: fededunentzat eta sinisgabeentzat, kristautentzat eta beste erlijioetakoak ere bai.


Dena den, pelikulak Scorsese-ri eskuetatik erori egin zaiola dirudi, batez ere bigarren partean. Zatiirik ederrenak hasierakoa eta tentazioa gertatzen denekoa dira. Bi ordu eta hiru laurdeneko pelikula hau aspergarri ere egiten da zenbaitetan. Hobeto legoke produktu hau zine-klubetan, bertan eztabaiatu ahal izateko, areto komertzialetan baino.



**La última tentación de Cristo**  
Estatu-Batuak. Drama, 1988. 164 minutu  
Zuzendaria: Martin Scorsese  
Aktoreak: Willem Dafoe, Harvey Keitel, Barbara Hersey  
Aretoa: Trueba

# LIBURUAK

## Obabakoak



*Obabakoa* ez da nobela bat, nahiz liburu horren barruan baden zati handi batean nobelaren antza duen zerbait.

Liburu honetan ixtorioak biltzen dira, gehienak Obaban gertatzen diren ixtorioak, gure herrian gaur ere ikus daitezkeen horietakoak. Ixtorio hauetako anitz lehendik ere ezagunak genituen, oraingoan ukituekin agertzen diren arren.

Liburu hau da benetan gozatzeko horietako bat. Pixkanaka pixkanaka irakurri daitekeena, ixtorien arte-

ko loturak, halakorik badeanean, aski ahulak baitira. Liburu hau da itsas bazterrean irakurri daitekeen horietakoa, patxadaz, ikusiz nola den gauza Bernardo halako atmosfera magiko eta aldakorra sortzeko orrialde honetan bai eta hurrengoan ere. Hori gutxi egiten dute. Euskal Herrian ia ia inork ere ez, Hizkuntzari beldurra galdu eta irudimena antzaz kontrolik gabe baina beti bide egokirik ibiltzen uzteko gai dena da literatur idazlea. Horixe da, hain zuzen ere, Bernardok egiten duena liburu honetan.

## Africa Beltzean

Aztoa eta misterioa nahasiz, irakurle-go zabal bati zuzendutako ebasiozko nobela da.


Kurt Altdorfer enpresari alemanak eta Roger Damian senegaldarrak elkar eza-gutu ondoren, alemanari gertatzen zaizkion pasadizoak azaltzen zaizkigu.

Izan ere, Kurt Altdorfer-i, Dakar-era heldu bezain laister, Domain jaunaren heriotzaren berri ematen diote. Europara itzultzekotan dagoenean, Francine, alterneko neska bat dela medio, inondik inorako zerikusirik izan gabe, espioitzako sare batean murgildurik dago.

Nobelaren kanpo eta barne-egiturak irakurketa atsegina eskaintzen du. Denborapasan gustora irakurtzeko liburua da.

**Xabier Gereño**  
**AFRICA**  
**BELTZEAN**


Obabakoak, 1987. urteko 8. liburua. Gure liburuak  
Bilboan, Euzkoan eta beste tokietan  
guzuzen. Gure liburuak guztia  
Bilboan eta Euzkoan dira.



### LARRUZKO ARROPEK ERE BADUTE ZIKINTZEKO ESKUBIDERIK

Larruzko arropetan azaleko zikina erraz joaten da. Oihal puska bat busti piska bat, larrua- ren gainetik pasa noizik behin eta kitto. Baina kolore argiko **txamarran** mantxa **nabarmena** baldin baduzu, lan gehixeago emango dizu. Ur piska bat eta beste hainbeste alkohol eta ur oxijenatu nahastu. Likido hone- kin igurtzi larrua eta, azkenean, uretan bustitako trapua pasa gainetik. •

- ..




### GARBIGAILUAK ERE BADU GARBITU BEHARRIK

Garbigailua ere erabiliaren **poderioz** zikindu egiten da bar- rrutik. Noizik behin garbitzea ko- meni da. Ur epelaz eta lau litro **ozpinez** bete garbigailua eta martxan jarri. Programa osoa egin behar du lanean. Horrela, tutuak garbituko ditu eta xaboi puskak ere desegino dira. •

- ..

## AHOLKUAK



### ERREMINTAK EZ HERDOILTZEKO

Erremintak ez **herdoiltzeko**, sartu ikatz edo klarion puskak erreminta-kutxan. Barruko heze- tasuna hartuko dute. Naftalina bolatxoek ere balio dute airea le- hor mantentzeko. Bestela, sartu erremintak hareaz betetako ontzi batean. Gehiago **iraungo** dizute horrela. •

- ..

## AHOLKUAK



# “ PASTELERO DALE FUEGO! ”

## Eguberrietarako jakiak INTXAURSAL TSA

Gabonetarako postre zaharretan zahar, intxaursaltsa aintzina ondorengo eran egiten zen (formula arinagoa nahi izan ezker, ordea, edozein sukaldaritza-liburutan aurki daiteke)

Sei lagunentzat:

250 gr. intxaur (azalik gabe)  
250 gr. azukre  
Kanela txotx bat  
Litro bat ur  
Litro bat esne


Lehenbizi, intxaurrek xehe-xehe egin behar dira. Gaurregun badira xehegailu egoki eta azkarrak, baina pazientziaduna bazara intxaurrek oihal sendo baten bildu eta egurrezko mazoarekin kolpatuz xehe itzaçu, askoz gusto hobea izango bait dute.

Ura eta kanela jarri sutan. Irakiten hasten denean intxaurren pasta erantsi bertan. Irakiten utzi eta ura agortzen denean esnea eta azukrea bota. Irakiten utzi berriz, krema arin baten itxura hartu arte. Hotza zerbitzea komeni da.

Egin ezazu proba aurtan. Ez zara damutuko.

## GOZAZALEENTZAKO COCKTAILA


Etxean erraz egiten da Baileys edari gozoa. Ontzi haundi batean potokada bat esne kondentsatu eta whiskey nahastu kantitate berdinean. Gero, basokada txiki bat kafe eta bi gorringo erantsi eta batidoratik pasa. Edateko orduan izotzarekin serbitu behar da.



## TXOKOLATE-PASTELA LABEAN SARTU GABE

Litro bat esne ipini irakiten. Bi tableta txokolate eta ehun gramo gurin piskanaka bota ontzi horretan eta eragin, ondo urtu arte. Beste ontzi batean azukrea eta ura nahastuta, urazukrea prestatu. Gero, gailetak-lau bat pakete txiki-urazukretan busti. Bukatzeko, plater zapal batean tartekatu gailetak eta txokolatea. Hozten utzi eta izozkailuan sartu eta kitto. •

88



			Metel nota		Pasmoak		Euritakoa		Puska
			Zeken		Moile		●		
			Belardia						
			Iher, zaildu						
●			Kontsonantea		Baiki				
Pirinioetako aintzira	Oraingoa		Nago		Arren sekuea				
			Gollarea						
			Makala						
Ereman ezak							Pokala		Sudurreri darion isurkia
Sensideak							Hotzak		
						50		1.000	
						Zehetsaraz		Aken eta lehenengo	
Dituzu (neri)									
Deukan									
			Eskumak gurasoekik						
			Musika nota						
Lehen pertsona	Ipar. Eriak zaindu.							Bat	
								Gotaidea	
			Ukatzeak		Gurdi				
			Euskarat eta kitto!		Zerori				
Jainko ejiptiarrak									Lehenengo pertsona
Ordu			Letra grekoa						
			Seigarren hilabete						
			Kontsonantea						
Uktu							Moile		

● Udazkeneko hileak



## EZIN APARKATU

Madrilgo Moncloako jauregiaren aurrean utzi nahi zuen autoa gure gizonak. Goardia etorri zitzaion.


- Barkatu baina laster ministroak irtengo dira eta ezin dezakezu hemen utzi zure kotxea.
- Berdin da, gizona, herenegun jarri nion antirroboa.







## JEROGLIFIKOA



KONTUZ...



## DIKTATU ZAILA

Iboni ez zitzaion batere gustatzen diktaketa. Eta hala ere egin egin behar. Hasi da andereñoa ipuin bat diktatzen.

• • •

— Ea guztiok ongi idazten duzuen. Eta ez dut falta bat bakarrik ere nahi, e? Ea bada, hasi egingo gara. «U-rrez-ko a-rraul-tze-ak e-rru-ten zi-tu-en oi-lo-a»...

Alboko neskak Iboni galdetu dio, kezkatuta.

- Aizu! «Arraultzeak» horrek ba al du «H»-rik?
- Ez dakit, nik bada ezpada ere «potroak» jarri dut.



**LETRA-ZOPA:** Aurki itzazu zopatan eta ipini ondoko mapan, bertan markaturiko Euskal Herriko zazpi eskualdeen izenak.

D H O P E T T A R A  
 A E D L A S O L O T  
 N R O S T E A K Ñ O  
 H R U D A I M A I T  
 X I G O T E R R B N  
 T B E A R I A N E D  
 N E R I R J O S R T  
 E R N E R A B A T D  
 A R A N A T Z A B K  
 T I B A Ñ A A I Z




\* Soluzioak hurrengo alean.

# A U R K I B I D E A

## TXITXILIBAKIOREN 3.ALEA:

Udal Euskara Batzordea .....	1
Zazpiki Irratia uhinen bidez.....	2
"Sekretuzko istorioa".....	4
Eutanasia eta Abortoa.....	7
Gazteria.....	12
Iñaki Agirre:Zine Klubaren gidari bakartia.....	14
Luis Mazzantini Eguía.....	17
Test psikologikoa.....	20
Euskera Mintegia.....	23
Basarrik Elgoibarri.....	26
Euskara Elgoibarren Gerra ondoren.....	28
( Gotzon Garate )	
Txinatar Horoskopoa.....	30
Hamar minutuko "egurra" gorputzari.....	32
Diskoak, liburuak eta zinea.....	34
Aholkuak.....	36
Denborapasa.....	38

ELGOIBAR, 1.988 KO ABENDUA





Baina amak ez al dizu  
esplikatu... ez al dakizu  
orain zer...

Eez...

Ondo gaude! Zuk jakin ez  
eta ni dagoeneko  
ahaztua!

Kaixo irakurleok!

Aldizkari hau hobetu nahian, zuen laguntzaren  
eske natorkizue. "Irakurlearen txokoan" parte  
hartzea nahi baduzue, zuzenbide honetara bi-  
dal itzazue zuen lan edo burutapenak:

San Frantzisko kalea, 24, 1<sup>º</sup>a, ezkerretara.

HALA  
IZAN  
DADILA !



